



**“Banekien sasoi
onean heltzen
nintzela Europako
txapelketara”**

Irene Loizate Sarriónandia
Europako Txapelduna • 27

Abadiñoko hiru emakumeri
egindako sexu indarkeria salatze
ko, kontzentrazioa astelehenean

Abadiño | Auzitegi Gorenak 13 urte eta erdiko kartzela zigorra
ezarri dio 44 urteko gizonezko bati. • 5

JAIK
OTXANDIO
ZORNOTZA



Otxandion
ongi etorriak

Siriako gerratik ihesi Otxandiora heldu ziren ama-
seme kurduak dira Mamand Ahmad eta Jim Kerejol. Euren eta
euren familiak odisea bat bizi izan zuten Euskal Herrira heldu
aurretik. Otxandion besoak zabalik hartu zituztela diote.
Hasieran, etorkinei laguntzeko helburuagaz sortutako Harrera
Taldekoeen babesa izan zuten. • 2-3. orrialdeak

Durangaldeak
Saharako 47
ume errefuxiatu
hartuko ditu udan

Durangaldea | Ume sahararrak
hartzen hasi dira eskualdean, uda
pasatzeko. Bisekin izandako arazo
bategatik oraindino ez dira ume
guztiak ailegatu.

4. orrialdea



Hertzainak
gogoratuko duen
emanaldirako
sarrerak, agortuta

Durangaldea | Garik
eta Josu Zabalak irailaren
25ean eta 26an Euskalduna
Jauregian eskainiko duten
kontzertu bereziko sarrerak
ordu gutxitan amaitu dira.

26. orrialdea



LEHIOR ELORRIAGA

Mamand Ahmad
Alepo (Siria) | **1998**

Jim Kerejol
Afrin (Siriako
Kurdistan) | **1968**
Errefuxiatu kurduak

“Bizirik eta familia osoa elkarregaz gaude; askok ezin dute berdina esan”

Jim Kerejol eta Mamand Ahmad ama-seme kurduak Otxandion bizi dira, iaztik. Siriako gerratik ihesi eta odisea bat igaro ondoren heldu ziren bertara. Semea gustura bizi da Euskal Herrian. Amak bere sorterrira itzultzea du amets.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Gerrako basakeriak, pertsona trafikatzailen mafiak, errefuxiatuen kanpamentuak... Sirian gerra zibila hasi zenetik makina bat miseria ezagutu dituzte Jim Kerejol eta ama-semeek eta euren familiak. Orain dela urte eta erditik hona Otxandion bizi dira guztiak. Etorkizunari itxaropentsu begiratzen diote, baina iraganaren pisua nabari zaie. Detalle handiz gogoratu eta kontatu dute 2011tik hona bizi izan duten odisea.

Kurduak izan arren, Siriako Alepo hirian bizi zineten. Zelakoa zen bizi-modua han?

Mamand Ahmad: Eskoletan ezin nuen kurdueraz berba egin, ezta lagunekin ere. Arabiarrez bakarrik. Alepon batzen ziren etnia guztien artean diskriminatuenak ginen.

Gerra zibila 2011n hasi zen. Gertutik bizi izan zenuten?

M.A.: Hasieran gerra ez zen Alepora heltzen. Manifestazioak, gobernuaren hilketak eta antzerakoak telebistan jarraitzen genituen.

Gerra eragin zuten motibazioei buruz zer iritzi duzue?

M.A.: Orduan, hauxe zen European gerraren inguruan zabaltzen zen imajina: ez da iraultza bat, terroristak dira. Ez zen egia. Hasieran, lehenengo sei hiletan, iraultza

justu bat izan zen. Unibertsitateko ikasleen iraultza bat izan zen, gizarte justuago baten bila. Baina lehenengo etapa horren ondoren, dena nahastu zen: Al Qaeda, Isis... Gerra zikina bilakatu zen. Nik ez dut inor justifikatuko. Alderdi kurduak ere txarto egin dituzte gauza asko.

Zuen bizia egon zen inoiz arriskuan? Tiroketarik edo antzerakorik ikusi zenuten?

M.A.: Gerra hasi zenetik, urte bi ingurura heldu zen Alepora. Behin, gure auzora jaurtitako bonba batek 21 lagun hil zituen.

J.K.: Egoera oso arriskutsua zen. Behin, senarra teilatuko terraza batean egon zen, bere lobagaz. Jausitako eraikinei argazkiak ateratzen zebilen loba. Gobernuakoei zein Estatu Islamikoko defendatzaileei ez zitzaien gustatzen inork argazkiak ateratzerik. Ez dakit bietako zein izan zen, baina, ohartu zirenean, tiroka hasi ziren. Senarrari bala bat burutik zentimetro bira igaro zitzaion.

“**Hanketatik autora soka batekin lotu eta arrastako eramaten zituzten. Horrelakoak ikusten genituen**”

M.A.: Beste behin, frankotiratzaile batek 16 bat urteko gaztea hil zuen bere etxe aurrean. Ezelako arrazoirik barik, denborapasa moduan erail zuten. Apustuak egiten zituzten euren artean, distantzia luzetik persona bat hiltzeko kapaz izango

“**Otxandioko harrera taldekoak bazkari bategaz egin ziguten ongietorria. Oso ondo portatu ziren gugaz**”

ziren ala ez jakiteko.

J.K.: Behin, Estatu Islamikoko jendea gure auzoan sartu zen, pertsona biren bila, gobernuari laguntzen ziotelakoan. Baina txarto irten zitzairen. Auzoan bazekiten Estatu Islamikokoak bertaratuko zirela eta segada batean hil zituzten. Gero, hankekatik auto batera soka bategaz lotu eta arrastaka eramane zituzten. Horrelakoak ikusten genituen.

Eta handik irtetea erabaki zenuten.

J.K.: Bai, eta eskerrak joan ginela. Handik denbora batera bonba bat jausi zen gure etxean.

M.A.: Bai, anaia irten zen lehenengo, ezkutuan. Izan ere, 18 urtetik gora zituen eta harrapatu izan balu-

te armadara batzera behartuko zuten. Gu Siriako Kurdistanera joan ginen, Afrin herrira, amaren sorterrira. Han elkartu ginen anaiagaz, eta urtebete eman genuen bertan.

J.K.: Mundu guztiak zekien gerra Afrinera ere helduko zela lehena-go edo geroago, eta handik Urfa-ra mugitu ginen, Turkiako Kurdistanera.

M.A.: Hile batzuetan egon ginen han. Ni okindegi batean lan egiten hasi nintzen, 14 urte gaz. Oso gogorra zen: goiz-goizetik gauera lanean. Nire izaera asko aldatu zen. Soldatu txikiagaz bizi ginen. Beraz, Istanbulera joan ginen. Han ere ez genuen egonkortasunik aurkitu. Aitak Greziara joan gura zuen eta mafia talde bategaz hartu-emanetan ipini zen. Prezioa 600 euro zen buruko. Europako lagun eta senitartekoen artean batu genuen dirua. Baltsa batean 56 lagun joan ginen, asko umeak. 20 bat minutura Greziako irla batera heldu ginen. Handik Greziaren eta Mazedoniaren arteko mugaldera joan ginen. Mugak itxita zeuden eta hiru hile eman genituen bertan, Idomeni izeneko kanpamentuan.

Zelan heldu zineten Euskal Herrira?

M.A.: Grezian toki batean baino gehiagotan bizi izan ginen. Azkenean, Nazio Batuen Erakundeko ordezkari batzuekin batu ginen. Guk ezin genuen aukeratu nora joan, baina aitak esan zien bere

semea, nire anaia, Espainian zegoela eta hara joatea gura genuela, familia osoa batera egon zedin. Ordurako, anaia Katalunian bizi zen. Gasteizen aurkitu ziguten toki bat. Grezian denek esaten ziguten zortea izan genuela, Euskal Herria toki ona delako bizitzeko.

Eta Gasteiztik Otxandiora?

M.A.: Sei hile eman genituen Gasteizen. Gurasoei gehiago gustatzen zaizkie herri txikiak hiri handiak baino. Errefuxiatuen inguruko CEAR erakundearen bitartez, Otxandioko harrera taldeko lagunak ezagutu genituen. Eurak etorri ziren gugana, Gasteizera. Otxandio ezagutzera gonbidatu gintuzten. Bazkari bategaz egin ziguten ongietorria. Oso ondo portatu ziren gugaz. Azkenean, Otxandiora etortzea erabaki genuen, eta urte eta erdi daramagu hemen.

Gaur egun zelakoa da zuen bizimodua Otxandion?

M.A.: Lana bilatzen lagundu zidaten hemengo lantegi batean. Zortzi hile eman nituen han, eta utzi egin nuen. Kontua da nire bizitzan sekula ere ezin izan dudala gura nuena egin. Beti aritu naiz gauzak derrigorrez egiten, egin behar zirelako. Gustuko dudak zerbait egin gura nuen, baina ez nekien zer. Buruari buelta asko eman nizkion. Azkenean, etxean kozinatzen laguntzen nuen, amak sukaldaritza ikastaro batean

parte hartzea gomendatu zidan eta orain horretan nabil. Orain aste bi hasi nintzen. Gustatzen zait kozinatzea.

Herritarrekin zelakoa da zuen hartumana gaur egun?

M.A.: Nire amak badu lagun bat. Niri gehiago kostatzen zait. Jende gazte ona dago Otxandion, jatorra. Sarritan gonbidatu naute eurekin irtetera. Erlazioa estuagoa ez bada, ez da eurengatik, nire izateko moduagatik baino. Txikitako lagun bi Suedian daude eta eurekin ia egunero berba egiten dut. Ea datorren urtean bisitatu gaitzaketen.

Sirian utzi zenuten senitarteko eta lagunengan asko pentsatzen duzue?

J.K.: Nik ikaragarri! Egutero. Telefonoz egoten naiz haiekin. Hemen ondo gaude, baina nire bizitza ia osoa han eman dut. Egutero batean itzultzea gustatuko litzaidake. Hori da nire ametsa.

M.A.: Nik ez dut hara itzuli gura. Bisitan bai, baina ez han bizitzera.

Bizitako guztitik positiboa den ezer ateratu daiteke?

M.A.: Bizirik eta familia osoa elkarrekin gaude; askok ezin dute berdina esan. Gerran zenbat jende hil den eta zenbat sufrimendu eragin duen pentsatzen dudanean ondorio hori ateratzen dut. Gurago dut ikuspegi horregaz geratu bizitakoagaz baino.



Alepoko euren etxea, bonbek suntsituta.



Mamand Ahmad eta Jim Kerejol —ezkerrean— Grezian, Idomeni izeneko kanpamentuan.

Otxandioko Harrera Taldeak kanpotik datozenei herrian integratzen eta bizitza berregiten laguntzen die

Taldetik haratago doan herritarren sare bat sortzea lortu dutela azaldu dute Humberto Trapero eta Aitziber Balanzategi Harrera Taldeko kideek. Sare horri eskerrak, sortzen diren beharrezaneiei modu eraginkorragoan aurre egiten diete

HARRERA TALDEA • JOSEBA DERTEANO

Otxandion Harrera Talde bat dago, kanpotik herrira bizitzera datozenei integratzen eta bizitza berregiten laguntzeko. Taldea 2014an sortu zen eta, harrezkero, boluntarioen sarea handitu dute. "Horrek kasuan kasuko beharrezaneiei modu zehatzagoan eta eraginkorragoan aurre egiteko aukera eskaintzen digu", azaldu du Humberto Trapero Harrera Taldeko kideak.

Etorkina udaletxera erroldatazera doanean, Harrera Taldearen zerbitzua jasotzeko aukera eskaintzen zaie, fitxa bat beteta. Zer adin duen, zer hizkuntza dakien eta antzerako informazioa jakinda, soslai horretara ondoen egokitzen diren pertsonak aukeratzen dituzte Harrera Taldetik, etorri berriari laguntzeko. "Familia bat bada eta ume bat badute,



Humberto Trapero eta Aitziber Balanzategi, Otxandioko Harrera Taldeko kideak.

eskolan dabilen norbait bidaltzen ahalegintzen gara, gero eskolan ere babes edo harreman hori izan dezan", adierazi du Harrera

Taldeko Aitziber Balanzategik. Mamand Ahmad-i eta bere familiari lagundu zieten Siriatic Otxandiora etorri zirenean, eta

beste hainbat jatorritako pertsoekin ere aritu dira, Hegoamerikakoekin eta Saharakoekin, besteak beste. Sortzen diren

beharrezanak askotarikoak dira: gestio burokratikoekin laguntzea, lehen beharrezanetarako produktuak lortzea, herrian dauden aukerei buruz informetzea...

Adibide bik erakusten dute unean uneko beharrezanen aniztasuna eta herritarrek erakutsi izan duten elkartasuna. "Egutero Gasteizera joan behar badute, autobusa garesti irten dakieke. Beraz, garraioa gure sareko jendeagaz eskaintzen ahalegintzen gara, ordu antzerakoetan Gasteizera doazen herritarrekin", dio Balanzategik. Beste kasu batean, ezer ez zuen familia kurdu bati laguntzeko mezua zabaldu zuten whatsapp-ez. "Herritarren erantzuna itzela izan zen eta inplikazio handia ikusi genuen. Batzuek dirua ipini zuten eta beste batzuek arropagaz, janariagaz edo askotariko produktuekin lagundu zuten", gogoratu du Traperok. Oraindino hainbat gauza gordeta dituzte, abadetxean. Etorkizunari begira, lokalen bat bilatu eta produktuen banku bat sortzea pentsatzen ari dira, produktu guztiak ordenatzeko eta beharrezana dagoenean erabiltzeko.



Atxondon bezala, Durangon eta Elorrioren ere harrerak egingo dituzte datozen egunetan.



Elorrioren etorritako sei ume, boluntario batzuek lagunduta. Beste hiru ume helduek daude.

47 ume sahararrek igaroko dute uda Durangaldean, harrera familiei eta elkartasun taldeen babesari eskerrak

Iaz etorritako ume errefuxiatuekin alderatuta, aurtengo zazpi ume gehiago egongo dira eskualdean, elkartasuna indartsu dagoen seinale

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Rio de Oro, Lajwad eta Hamadako Izarrak elkarteak eta harrera familien babesari eskerrak, 47 ume sahararrek igaroko dute uda Durangaldean. Iaz etorritakoekin alderatuta, aurtengo zazpi ume gehiago egongo dira eskualdean, elkartasuna indartsu dagoen seinale.

Rio de Orokoen kasuan, ezin ahaztu aniztasun funtzionala duten umeak izango direla

Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren umeak dira, eta uda kanpoan pasatu ahal izateak hainbat onura ekartzen die: 50 graduko tenperaturak saihestea, mediku azterketak egitea, elikadura zaintzea... Familiek eta boluntarioek, bestalde, herri saharararen borrokari laguntzeko modu zuzen bat lortzen dute.

Oporrak bakean programagaz bat eginda, Elorrioren harrera familiek bederatzi ume hartuko dituzte etxean. Maku Florentino Lajwad elkarteak kideak azaldu du hiru ume lehenengoz datozela, eta herrian harrera familia berri bi sortu direla. Beraz, pozik daudela aitortu du Florentinok. Durangaldeko gainerako herrietan beste hamabi umerentzako babesak lortu du Rio de Oro, iaz baino lau gehiago.

26 haur kanpamentuetan

Durangaldean kanpamentu garrantzitsu bi antolatzen dituzte Rio de Oro eta Hamadako Izarrak elkarteak, 24 orduko zaintza eskaintzen dutenak. Dozenaka boluntarioen ekarpena eskatzen du horrek. Rio de Oro 11 ume egongo dira Izurtzako aterpetxean, eta Hamadako Izarrak taldeagaz 15, Axpeko aterpetxean. Lehenengoen kasuan, aniztasun funtzionala duten umeak izango dira, behar bereziak eskatzen dituztenak.

Atxondon, herritarrek eta politikariek harrera egin zieten martitzenean.

Bisekin arazoak

Bisa kolektiboekin izandako arazo bategatik, ume sahararretako ba-

Elkarteetako kideek diote ez dutela informaziorik, baina umeak laster heltzea itxaroten dutela

tzuk Euskal Herrira heltzeaz daude oraindino. Durangaldean, Rio de Oroko kanpamentuko denak eta familietara datozen ume berriak falta dira. Elkarrekin diote ez dutela informaziorik, baina umeak laster heltzea itxaroten dutela.



Rio de Oroko kideak Saharan, abenduan.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko uztailaren 5a
17. urtea - 770. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bikam**
komunikabideak
komunikabideak
komunikabideak

PEFC
Produktu hau
kontrolatuta
dagoela ziurtatzen
du eta hori
zaintzen du
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Gizon abadiñar bati 13 urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri diote hiru emakumeri egindako sexu indarkeriagatik

Gorenak kartzela zigorra ezarri dio Abadiñoko gizonetzko bati, emakume bati eta haren alaba biei egindako erasoengatik

DURANGALDEA • M.O / J.G.

2018ko urtarrilaren 22an, Bizkaiko Lurralde Auzitegiak 16 urteko kartzela zigorra ezarri zion Abadiñoko 44 urteko gizonetzko bati, 2009az geroztik emakume bati eta honen adin txikiko alaba biei sexu erasoak egiteagatik. Akusatuak errekurritu egin zuen eta Auzitegi Gorenak kartzela zigorra berretsi du, nahiz eta hamahiru urte eta erdiko zigorrera murriztu.

Abadiñoko Udalak eta Durangaldeko Mugimendu Feministak kontzentrazioa deitu dute. Astelehenean izango da, 20:00etan, Txanponta plazan. Abadiñoko

Udalak kontzentrazioagaz bat egiteko dei egin die herritarrei, erasoak salatu eta auzokideei babesa emateko. "Hiru emakumeen bizipena zalantzan jarri izana eta horrek ekarri dien min areagotua salatzen ditugu", azaldu du Abadiñoko Udalak adierazpen instituzionalean.

Durangoko salaketa

Emakume batek salaketa ipini zuen gizon baten aurka, eta, ondoren, ustezko erasotzaile hori atxilotu egin zuten, joan zen domekan. Astelehenean pasatu zen epailearen aurretik.



Martxoaren 8an Abadiñon egindako protesta bateko argazkia.

Laguntza eskainiko dute, errotuluak eta webguneak euskaraz ipintzeko

DURANGO • M.O.

Amankomunazgoak diru-laguntzak eskainiko ditu errotuluak eta webguneak euskaraz ipintzeagatik. 50 langiletik beherako enpresa txikiek dute aukera laguntza eskatzeko. Irailaren 27ra arte dago epea.

Euskara hutsean ipintzen dituztenek %50eko laguntza jasoko dute. Elebikoen kasuan, %25 izango dute finantzatuta, baina euskarazkoa lehenetsi beharko dute.

Uztailean, erosketak doakoak izateko aukera Durango Txartela erabilita

DURANGO • M.O.

Hilaren 30era bitartean, Durango Txartela erabilgarri duten dendetan 100 eurora arteko erosketak doakoak izan daitezke, Dendak Bairen kanpainari eskerrak. Erosketa guztien artean, 40 doakoak izango dira. Erosketa-tiketean ipiniko du, zoriak hala erabakita, doakoa izango den ala ez. Durango Txartela atera gura duenak Nafarroako Rural Kutxako edo Dendak Bai elkarteak bulegoan du horretarako aukera.

Ima Garrastatxuk %40 bajatuko du Durangoko alkate izateagatik kobratu beharreko soldata

EH Bilduko alkateak 73.800 eurotik 47.000 eurora murriztuko du urteko soldata; liberazioen atala astelehenean onartuko dute, eztabaida atzeratzea erabaki eta gero



Martitzenean legealdi berriko lehen osoko bilkura egin zuten.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Ima Garrastatxuk %40 bajatuko du alkate izateagatik kobratu beharreko soldata. Irigorasek urteko jasotzen zituen 73.800 euroetatik 47.000ra bajatuko du. "Durangoren alde dedikazio eta errespetu osoz lan egin daiteke aurreko lanpostuan nuen soldata bera mantenduz", esan du Garrastatxuk. Aparte, liberatutako zinegotzien-tzako soldata 3.000 eurotik 2.000ra bajatuko dute, batzordeak zazpitik hirura pasatuko dira, eta dietak txikituko dituzte. Guztira, legealdian 425.000 euro aurrezte aurreikusi du EH Bildu eta Herriaren Eskubidearen gobernuak.

EAJk, ostera, ez du ikuspegi bera, eta herritarrek "nahasten" ibiltzea egotzi dio gobernuari. Aginteko taldean hiru liberatu gehiago egongo direla eta urteko kostua 45.358 eurotan igoko dela salatu du Mireia Elkoroiribek.

Liberazioen atala martitzenean osoko bilkuran onartu behar zuten, baina hurrengo bilkurara atzeratu dute eztabaida. EAJk eskatu zuen atzerapena, proposamenak aztertzeko "denbora falta" egon dela ohartarazita. Bozeramaileek

Garrastatxu: "Dedikazio eta errespetu osoz lan egin daiteke aurreko lanpostuan nuen soldata mantenduz"

eskaria onartu zuten, eta udal gobernuaren jarrera eskertu zuen Elkoroiribek. Datorren astelehenean egingo dute hurrengo osoko bilkura.

Batzordeak, eratuta

Herriaren Eskubideko Julian Rios izango da lehen alkateorde, eta EH Bilduko Iker Urkiza eta Aritz Bravo

bigarren eta hirugarren alkateorde, hurrenez hurren. Izendapen horiez gainera, udaleko batzordeak eratu ziren martitzeneko bilkuran. Herritarrek, Antolaketa eta Lurraldea izango dira, printzipioz hilean behingo maiztasuna izango dutenak. Urkizak azaldu zuen "eraginkortasuna" lortu gura dutela. EAJk

Liberatu gehiago egongo direla eta urteko kostua 45.358 eurotan igoko dela salatu du Elkoroiribek

lau batzorde eratzea proposatu zuten, eta jeltzaleentzat zein PSE-EErentzat "ez da nahikoa" hilean behingo maiztasuna.

Bestalde, ohiko osoko bilkurak eguaztentean izango dira. 18:00etara atzeratu dute ordua, herritarrek parte hartzeko aukera handiagoa izateko.



lea artibai
i k a s t e t x e a

Xemein Eforbidea 19
Markina-Xemein (48270)

deitu! 94 616 9002

www.learitik.eus

Mantenimendua
Energia
Goi Maila

Elikagaien
industriak
Goi Maila / B eredua

Mantenimendua
Erdi Maila

Administrazioa
Goi Maila

EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA

ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA

BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK

BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK

LANBIDE HEZIKETA

azken plazarak!

Datorren ikasturtetik aurrera, 17 urtetik gorakoek ere ikasi ahalko dute Oinarrizko Lanbide Heziketa

Durangon eskaintzen den urte biko ziklo hori beteta, ikasleek erdi mailako ziklo baterako sarbidea eskuratu dezakete

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Orain arte, DBH amaitu barik zuten 15 urtetik 17ra arteko gazteen-tzat zegoen bideratuta Oinarrizko Lanbide Heziketa, Durangon CEPA lez ezaguna den zentroan eskaintzen dutena. "Eskola porrotaren ondoren, gazte horiek ikasketetara bueltatu ahal izatea da helburu nagusia", azaldu du Carmen Mugica behin-behineko zuzendariak. Baina legeak aldaketa garrantzitsu

Orain arte, DBH amaitu barik zuten 15 urtetik 17ra arteko gazteentzat zegoen bideratuta

bat dakar, eta datorren ikasturtetik aurrera, adin muga kenduko dute. Beraz, 17 urtetik gora eduki eta bigarren hezkuntzako titulurik ez dutenek ere izango dute Oinarrizko Lanbide Heziketa ikasteko aukera.

Urte biko ziklo hau beteta, ikasleek erdi mailako gradu baterako sarbidea lortu dezakete. Mujikak dioenez, Iurretako institutua da euren erreferentzia zentroa, eta harek eskaintzen ditu tituluak.



OLHko zenbait ikasle, ikasturte honetan garatutako ekintza batean.

Euskararen arloko batzordea sortu dute Zornotzako Udalean

Orain arte, Ametx erakundetik sustatzen zen euskara

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Orain arte ez bezala, legegintzaldi honetan euskarak batzorde propioa izango du Zornotzako Udalean. Orain arte, Ametx erakunde autonomoaren barrutik sustatzen ziren euskararen arloko udal politikak. Aurrerantzean, Euskara Batzordeak hartuko du ardura hori. Amaia Aurrekoetxea (EAJ) izango da batzorde berri horretako burua.

Izaera "transbertsala"

Andoni Agirrebeitia alkateak aldaketa horren arrazoiak eman ditu. Batzorde propio bategaz euskarak "indar handiagoa" izango duela uste du, eta arlo horretako politikak modu "eraginkorragoan" eramango direla aurrera. Udaleko politika guztietan euskara gai "transbertsala" izatea gura dute. Helburu nagusietako bat euskararen kaleko erabilera handitzea da.



Erakundeetako eta Izar Cutting Tools enpresako ordezkariak, omenduekin.

Izar-ek bezeroekin batera ospatu du urteurrena

1969an Zornotzako enpresak nazioarterako saltoa eman zezan lanean aritutako pertsonak omendu zituzten, hainbat erakundetako ordezkariak batu zituen ekitaldian

ZORNOTZA • J.D.

Aurten 50 urte bete dira Izar Cutting Tools enpresa nazioartera zabaldu zenetik, eta joan zen barikuan egun osoko jai bategaz ospatu zuten. Mundu osotik etorritako bezeroez gainera, Unai Rementeria Bizkaiko ahaldu nagusia eta Estibaliz Hernáez Eusko Jaurlaritzako Teknologia,

Berrikuntza eta Lehiakortasun arloko sailburuordea batu ziren, besteak beste, ekitaldi nagusira. Carlos Pujana Izar-eko gerentearen berbaldiaren ondoren, 1969an Izar-en esportazio burua zen Jose Maria Gonzalez eta Hervé Gendebien omendu zituzten. Azken hori Izar-ek nazioartean izan zuen lehenengo enpresako burua da.

Hontzak udako tailerren bigarren txanda egingo du datorren astean

MAÑARIA • J.D.

Hontza Museoak udako tailerak antolatu ditu. Aste honetan egin dute lehenengo txanda, eta bigarrena hurrengoan izango da: uztailaren 10ean eta 11n, 11:00etatik 13:00etara. Hilaren 10ean *Animaliak errenkadan* izeneko ipuinaren kontaketa hasiko dute eguna. Ondoren, *Katu-basatiak* izeneko jokoan, espezie horretako animalien bila arituko dira museotik. Uztailaren 11n espezie inbaditzaileei buruzko azalpenak emango dituzte, besteak beste. Egun bietan museoko aretoak bisitatuko dituzte.

Egun bakoitzeko prezioa 2 euro da. Izen-ematea honako helbide elektronikoan egin daiteke: info@hontzamusoea.eus.

Mallabiko padel klub berriak udako kanpusa antolatuz hasi du bere ibilbidea

MALLABIA • J.D.

Hainbat herritarren lanari eskerrak, padel klub berria sortu dute Mallabian. Euren ibilbideko lehenengo ekimenetarikoa bat padelaren inguruko udako kanpusa da. Uztailaren 24ra arte iraungo du, eta 6tik 13 urtera arteko gazteei zuzenduta dago. Padelari ez ezik beste kirol edo ekintza batzuei (eskulanak, esaterako) ere egingo diete tartea goizero. Herrian padela sustatzeko beste ekintza batzuk antolatzeko asmoa dute etorkizunean.

San Ageda eguneko txosna Angelman sindromea elkarteak kudeatuko du

IZURTZA • J.D.

Irailean izaten diren Izurtza-ko jaietako egun handietako bat Santa Ageda ermitaren inguruan ospatzen den jaia da. Egun horretan, ermita inguruan dagoen aterpean jan-edanerako gune bat ipintzeko aukera eskaintzen du udalak. Txosna nork kudeatu erabakitzeke lehiaketara proposamen bakarra aurkeztu da, Angelman sindromea elkartearena, hain zuzen. Beraz, udalak euren emango die txosnako ardura.



Joan zen asteko udalbatzarrean eratu zituzten legegintzaldiari begirako batzordeak.



Amaia Uzuriaga taldekideekin batera jaietako lehenengo entsegua.



'Real Palestine Youth' taldeko kideak, Alberdigaz batera.

Dantzari Dantza parekidea lehenengoz San Pedro eta Santa Isabel jaien hasieran, Berrizen

Hainbat nobedade izan dira aurtengo Berrizko jaietan, eta horietako bat domekako egun internazionalista izan zen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko dantza taldeek, beste hainbat elkartegaz batera, Berrizko jaietan emakumearen presentzia bermatzeko ibilbideari ekin zioten 2016an. Aurtun, hiru urte geroago, jaien hasieran argazki historikoa atera dute. Donien Atxa jaso eta gero, lehenengoz Dantzari Dantza parekidea dantzatu zuten. Amaia Uzuriaga 17 urteko berriztarra izan

da plazara lehenengoz irten den emakumea Berrizen. Oso egun polita bizi izan zuen. "Dagoeneko herriko hiru ermitatan dantza eginda nengoen, eta, beraz, niretzat ez zen nobedadea, baina ikusten zeuden askorentzat, bai", aitortu du Uzuriagak. Bestalde, gazte berriztarrak eskerrak eman dizkie taldekideei "normaltasunez hartzearen", eta Dantzari Dantza ikasten dabiltzan

gainerako neskei horrela jarraitze-ko esan die.

Ezpatadantzarietara ateratakoa ez zen izan jaietan ateratako argazki historiko bakarra. Oihana Alberdi berriztarrari eskerrak, ekainaren 30erako egun internazionalista antolatu zuten Berrizen, eta bertan Palestinako errefuxiatuen Real Palestine Youth saskibaloitako 11 neskek parte hartu zuten. "Do-

mekakoa egun zoragarria izan zen. Herritarrek ezin hobeto erantzun zuten", aitortu du Alberdik.

Palestinako errefuxiatuen saskibaloitako taldeko kideak ekainaren 28an heldu ziren Euskal Herrira, Alberdiren ekimenez, eta uztailearen 12ra arte geratuko dira. "Jende asko ezagutzen dut, eta hau guztia antolatzea nahiko erraza izan da eurei eskerrak", gaineratu du Alberdik.

Hondakin bilketari buruzko kanpaina bat egingo dute Berrizen, ikasleen ideia jasota

BERRIZ • M.O.

Eskola Agenda 21 egitasmoaren barruan, gazteek zenbait proposamen eraman dituzte udaletara. Berrizen, ekonomia zirkularrari eta hondakin bilketari buruzko informazio kanpaina bat egitea proposatu dute ikasleek, eta udalak aurrera eramango du, udazkenean. "Ingurumen arazoaren konponbidean parte hartzeko, ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzen dira gazteekin.

Isoird: "Ezinbestekoa da horrelako ingurumen hezkuntza programak sustatzea"

Uste dut ezinbestekoa dela horrelako ingurumen hezkuntza programak sustatzea", azaldu du Orlan Isoird alkateak. Ikasleak eta programaren arduradunak zoriondu ditu ikasturtean eginiko lanagatik.



lanerako gertu!

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

2019-2020

Matrikulazioa
Uztailaren 11tik 17ra

Eskaintza akademikoa	
OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
•Administrazioa eta Finantzak •Zuzendaritza Idazkaritza •Salmenta Kudeaketa	•Automatizazioa eta Robotika Industrial •Sareko Informatika Sistemen Administrazioa •Fabrikazio Mekanikoko Diseinua •Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa •Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



Kaleko doinu dantzagarriek girotuko dituzte Zaldibarko jaiak

ZALDIBAR • A.M.

Eguenean Donien Atxa altxatu eta gero, Zaldibar jaietan murgilduta egongo da asteburuan. Barikuan, Radio Revolucion, Kulto Kultibo eta Anita Parker taldeek dantzari jarriko dute txosnagunea euren rap, funk eta bestelako doinu dantzagarriekin.

Zapatuan gazteak izango dira protagonista. Eguerdian bazkaria egingo dute, eta arratsaldean, olinpiadak. Iaz ipini zuten martxan ekimen hau, eta arrakasta ikusita, bigarrenegingo dute aurreten. Domekan, jaiak amaiera emateko, bertso saio musikatu egongo da Miren Artetxe, Onintza Enbeita eta Etxahun Lekuegatz; 18:00etan hasiko da.

Garain azken txanpan murgilduta dabilta herriko jaiak prestatzen

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Garaiko jaiak uztailaren 24an hasiko dira, eta prestatetako azken txanpan murgilduta dabilta herrian. Udalak antolatzen ditu jaiak, eta Trumoitte elkarteak zenbait ekintzaren ardura izaten du.

Santiago, Santa Ana eta San Inazio jaien segidak astebeteko ekintzak ekarriko ditu, uztailaren 31ra arte. Jaietako ekitaldi nagusietako bat, herri bazkaria, hilaren 27an izango da aurreten.

Otxandioko pilotalekua pintatu dute eta konponketa txikiak egin dizkiote

OTXANDIO • J.D.

Santamaña jaiak hasten direnako, Otxandioko pilotalekuak itxura berria izango du. Berriro pintatzen ari dira barrualdetik, berde kolorez, gaur egun frontoirik gehienak dauden koloreagaz. Horregaz batera, barrualdean konponketa txiki batzuk egin ditzute; goialdeko sarea konpondu dute, besteak beste. Lanak joan zen astean hasi zirela eta amaitzeaz daudela adierazi du Egoitz Garmendia alkateak.

Iurretako Lanbide Heziketa Zentroak orain dela 40 urte ekin zion bideari, 9 irakasle eta 125 ikaslegaz

Ikastetxearen 40. urteurrena ospatzeko, gaurko eta atzoko hainbat irakasle elkartu ziren joan zen ekainean

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Administrarritza, Automozioa, Elektronika, Metala eta Kimika. Bost espezialitate horiekin eman zituen lehen pausoak, 1979an, Iurretako Lanbide Heziketa Zentroak. 9 irakaslegaz eta 125 ikaslegaz ekin zion bideari, orain dela 40 urte. Gaurko eta atzoko irakasleek lagunartean ospatu dute urteurrena.

1982-1983 ikasturtean irten zen lehenengo ikasle promozio hura. Sei urteren barruan, 45 irakasle

Lanbide Heziketa Zentroak "harreman sendoa" lortu du eskualdeko lan munduagaz

eta 525 ikasle izatera pasatu ziren. Lanbide Heziketa Zentroko ordezkariak azaldu dutenez, "enpresa munduan langileen formakuntza behar zen eta lanbideen prestakuntzak arrakasta handia izan zuen hezkuntzan". Teknologiak gerora

garrantzi gehiago hartu ahala, ikastetxeak batxillergo espezifikoak eskaini ditu, Administritza eta Industria arlokoak, eta eskualdeko lan munduagaz "harreman sendoa" lortu du. Azaldu dutenez,

"aipatzekoak dira ikasi eta lan egiteko aukera ematen duen DUALak izandako bultzada, eta lanerako prestakuntzak duen garrantzia; ikasketak euskaraz egiteak ere bai". Ikasturte honetan 51 irakasle eta

302 ikasle izan dira, eta ikasleei kalitatezko formakuntza eskainita hauek ondo heztea da etorkizuneko erronka. "Enpresak asetzeko eta aro berrien premiei aurre egiteko", diotenez.



Ikastetxeko sasoi bateko eta gaur egungo hainbat irakasle urteurren borobila ospatu zuten lagunartean.



Atxondoko EAJko kideak.

Gorka Garate eta Maria Aranguez izango dira Atxondoko alkateordeak

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak 2019-2023 legegintzaldirako udal antolaketaren eta funtzionamenduaren berri eman du prentsa ohar birtualez. Oharrean jakitera eman dutenez, Gorka Garate eta Maria Aranguez izango dira Atxondoko alkateordeak. Bestalde, aurreko legegintzaldian baino hiru batzorde gehiago egongo direla jakinarazi dute. Hauek dira legegintzaldi honetako batzordeak: gure kaleak batzordea, gure pertsonak batzordea, kontu berezien eta pertsonaleko batzordea eta gure auzoak batzordea. Osoko bilkurak hileko lehenengo martitzenetan izango dira, 9:00etan.

Abadiñoko igerilekuko langileek mobilizazio gehiago egingo dituzte

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoko igerilekuko beharginek protestak egiten jarraitzen dute. Atzo, eguna, lau orduko lanuzteak egin zituzten (11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 19:30era bitartean), eta ELA, LAB eta CCOO sindikatuek egun osoko lanuztea zuten deituta gaurko. Igerilekuko

EH Bilduk mozioa aurkeztuko du datorren asteko osoko bilkuran, grebalariei alde

beharginek joan den astean ere egin zituzten lanuzteak.

Bestalde, Abadiñoko EH Bilduk babesa agertu die grebalariei ohar baten bitartez. Horrez gainera, udalean mozio bat sartzeko asmoa agertu du, udala beharginen lan baldintzak errespetatzearen alde agertzeko. Mozio horretan bertan, igerilekuko erabiltzaileen kalteordainen kargu egiteko eskatu du.

Grebalariei protestak nagusi Berrio-Otxoa Egunean

Meza nagusiaren aurretik, udal ordezkariak udaletxetik basilikarako bidea egin zuten txistulariekin batera

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrio-Otxoa Eguna ospatu zuten atzo Elorrioren, herriko patroien eguna. Udal ordezkariak, txistulariekin batera, udaletxetik basilikara egindako ibilbideagaz ekin zieten santu eta Bizkaiko zaindarekidearen omenezko ospakizunei.

Hasierako ekitaldi horietan, maiatzetik hona greba mugagabeen dauden Elorrioko eraikin, eskola eta lokal publikoetako garbiketaz bitzuko langileen zarata eta protestak izan ziren protagonista. Txistu hotsen artean hartu zituzten udal ordezkariak.



Udal ordezkariak Berrio-Otxoa Egunean.



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com



ERAZ.

Hareek denporak!

PAELLA JANA MENDIOLAKO SAN KRISTOBAL JAETAN

Uda heltzeagaz batera, auzoetako jaiak protagonista izaten dira Durangaldean. Horren adibideetako bat dira uztaile hasieran Abadiñoko Mendiola auzoan ospatzen diren San Kristobal jaiak.

Ohiturak aldatzen doazen arren, jaien helburua berdina da urtero: auzotarrak elkartzea eta disfrutatzea. 1998 inguruan ateratako argazki honetan ikusi daitekeenez, sasoi hartan abadiñarrak paella janean ba-

tzen ziren Mendiolan. Orduko hartan, Mila Salterain, Lorenzo Ziarsolo, Jose Angel Azkorbeitia eta Bizenta Agirre mendiolarrak ibili ziren zerbitzari lanetan.

Aurten paella janean batuko ez diren arren, auzokoek Maleta Siku bazkaria egingo dute uztaillaren 13an. Aurtengo Mendiola San Kristobal jaiak martitzenean hasi eta domekan amaituko dira. M.Z.

Durangaldea asteen

Apatamonasterioko su ikuskizunean zauritutako kidea arriskutik kanpo dago

Atxondo I Apatamonasterioko jaiak bertan behera geratu ziren zapatu gauean, Diables Autonomos de Korneya taldeak eskainitako su ikuskizunean kide bat larri zauritu eta gero. Kidea, 32 urteko bartzelonarra, tirolina batetik jausi zen eta martitzenera arte koman egon zen, ospitalean. Dagoeneko arriskutik kanpo dagoela azaldu dute jai batzordeko kideek. Bestalde, bertan behera geratutako ekintzak uda ostean berreskuratzen saiatuko dira.

Berrizko Udalak ur parkea ipiniko du bihar, herriko umeak jolastu daitezten

Berriz I Berrizko umeek ur parke batez gozatu ahalko dute bihar. Hain zuzen ere, 4 eta 11 urte artekoentzako eskaintza izango da, 10:30etik 13:30era bitartean Berrizburuko kiroldegian egongo dena. Ur parkera joan gura duten umeek aurrez eman beharko dute izena, Berrizburuko kiroldegian edo 946 826 244 telefonora deituta.

Plater-tiroko Mañariko sari nagusia jokatu dute, Mugarra Ateneoak antolatuta

Mañaria I Bihar, plater-tiroko sari nagusia jokatu dute Garaitorre jatetxean, Mañariko eta Izurtzako Mugarra Ateneo Zinegetiko kirol taldeak antolatuta. Plater-tiro ireki eta sozialak egongo dira aukeran, eta parte-hartzaileek 10:00etatik 12:00etara egin dezakete inskripzioa. Antolatzaileek sari ugari banatuko dituzte, 30 bat guztira.

Iritzia

Gutuna

Badira hiruzpalau urte Zaldibarren Euskal Dantzak plazan berriro agertu zirela. Urte askoan desagertuta egon ondoren, neska-mutilez osatutako taldea da gurea. Ez du beste talde batzuek duten esperientzia, belaunaldi asko ere ez dira igaro guretik, jaio berriak garelako esan dezakegu ... Gutariko askok txikitari ikasitako hura gogoratzea izan dugu helburu, eta ilusioz beteta eta gogotsu elkartzen gara, astero, Euskal Dantzak Zaldibarren galdu ez daitezten. Talde anitza eta zabala dela diogu harro.

Eta askatasun horretan, neskek eta mutilek gona zein prakak jantzita egiten dugu dantzari plazaratzen garenean, baita tradizionalki mutilenak izan diren dantzak ere, Dantzari Dantza besteak beste. Honek ez du gure artean inoiz inongo eztabaidarik sortu.

Gure harriidurarako, ordea, Durangaldeko Dantzari Dantza egunaren antolaketan, zeresan ugari eman zuten Zaldibarko dantza taldearen gonek, Dantzari Dantza tradizioz prakekin egin delako. Tradizioz? Barne eztabaida baten ondoren, ekainaren 15ean Berrizen ospatu zen Dantzari Dantza egunean parte ez hartzea erabaki genuen.

Gure herrian plazaratutako gara aurten ere, gure gonak praken artean, txapelak buruko zapiekin dantzari, txintzarriak tartekatuz ... Dantzari Dantza babestu eta luzaroan iraun dezan, gure harritxoak jarriko dugu, Durangaldeko ondare garrantzitsua baita.

Onintza Enbeitiak Berriako iritzia artikulua baten jaso zuen moduan: "Tradizioak ez baitu erabakitzen, tradizioak ez du berak bakarrik irauten, tradizioak ez du zer egin behar dugun esaten. Erabakiak pertsonen hartzen dituzte".

Auritz Maortua, Sorne Uriarte, Felipe Uribarri, Fco. Javier Sanz, Arantza Baigorri, Mirari Urizar, Ekain Alberdi, Iban Uribarri, Eneritz Arantzeta, Alaitz Urien, Amaia Mendibe, Jagoba Villanueva eta Kepa Mendibe (Zaldibar).

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA - Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



- Konfidantza, ikastola -

DURANGALDEKO IBAIZABAL IKASTOLAK ZUZENDARI OROKORRA BEHAR DU

EZINBESTEKOAK:

- Goi mailako unibertsitateko titulua izatea (lizentziatura edo gradua)
- Esperientzia kontrastatua, ekonomian eta kudeaketa arloan (gutxienez 3 urtekoa)
- Hezkuntza sektorea ezagutzea
- Euskarari C1 eskakizuna
- Ikastolen elkartearen ezagutzea.

BALORATUKO DA:

- Talde dinamikan eskarmentua izatea.
- Euskal kulturaren ezagutza izatea
- B1 eskakizuna hirugarren hizkuntzan

CURRICULUMAK AURKEZTEKO EPEA:

Uztailak 8 artekoa

NORA BIDALI:

zuzendaria@ibaizabalikastola.eus



Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

JAIK

OTXANDIO

2019ko UZTAILA

OTXANDIOKO JAIK

2019

UZTAILAK 17,18,19,20 ETA 21



Otxandioko jaiak

Uztailak 12, barikua

22:00 Gazte Asanbladaren argazki proiektzioa.

Uztailak 13, zapatua “GAZTE EGUNA”

09:30 Kalejira.

10:00 Gosaria eta kamiseta banaketa plazan.

11:00 Txupinazoa eta mural margoketa Gaztetxean.

13:30 Trikipoteoa.

17:30 Olinpiadak.

19:00 Brutality Sound System eta lagunak.

22:00 Kantoi kantaldia txokoko kantoi.

23:15 Kontzertuak Gaztetxean: RODEO, LA F.R.A.C, DJ. KOMANDO KLITORIX & ZURETZAKO MEZUA.

Uztailak 14, domeka “HERRI KANTU EGUNA”

12:00 Kantuzaleei harrera plazan.

12:30 Kalejira kantuan Soinubilen eskutik.

15:00 Bazkaria Pasealekuan.

17:30 Kantak eta dantzak plazan.

Uztailak 17, eguaztena

18:30 Otxandioko presoan eskubideen aldeko elkarretaratzea plazan, Giza Eskubideen Udal Batzordeak deiturik.

18:30 Ohiko Salve Regina abestuko da Oihandi abesbatzagaz batera.

19:00 Herriko txistulariek txupina botako dute. Jarraian, danborrada.

19:30 Eusko Label haragi pintxoak.

23:00 Erromeria MUGI PANDEROAK taldeagaz.

Uztailak 18, eguena SANTAMAÑA EGUNA

11:30 Bandaren kalejira. Ondoren, txistularien kalejira.

13:00 Herriko umeen pilota partiduak.

18:00 III. Yugura jasotze txapelketa eta aizkolariak: Aritz Oregi - Beñat Lekue, Jon Rodriguez - Luis Polanco.

19:00 Urduri dantza taldearen ikuskizuna.

20:15 PURO RELAJO taldearen emanaldia.

23:00 JOSELU ANAIK taldearen erromeria.

Uztailak 19, barikua UMEEN EGUNA

11:30 Umeentzako zirku tailerra plazan.

12:30 6. mailakoek eguneko txupina botako dute udaletxeko balkoitik.

13:00 Herriko umeen pilota partiduak.

16:30 Haurrentzako puzgarriak. Ondoren, KANTU KOLORE ikuskizuna.

17:00 Tute, mus eta briska txapelketak.

22:30 Kuadrillen arteko Play-backa.

Uztailak 20, zapatua

12:00 Otxandioko bandaren kalejira.

12:30 Otxandioko Urbiribil Dultzainero taldearen kalejira.

14:15 San Martinen paella txapelketa, bolo txapelketa eta zuzeneko musika.

20:00 SAKATU elektrotxaranga kaleetan zehar.

22:30 Kontzertuak herriko plazan: NOGEN, SKAKEITAN, SARA HEBE

Uztailak 21, domeka

7:30 Diana eta kalejira

8:00 Sokamuturra.

13:00 Omenaldia 1936an bonbardaketan hildakoei, Andikonan.

13:45 Limonada plazan.

14:00 Otxandioko eta Araiako banden ikuskizuna.

18:00 Pilota partiduak plazan: Ainhoa Ruiz de Infante - Olatz Arrizabalaga & Gentzane Alday - Amaia Aldai. Ondoren, Josetxu eta Iñakiren (Motxile) omenezko pilota partiduak eta omenaldia.

22:30 LOTXO taldearen berbena.

00:00 Agur Santa Marina.

Uztailak 22, astelehena

19:00 Nesken Soka Dantza herriko plazan.



**ETXEBARRI
LANDETXEAK**

945 450 123 • 676 947 523
OTXANDIO *Olaetara bidean*



IDIAZABAL
PADILLA

danoena
taberna

JAIETAN EGUNERO
ogitartekoak
hanburesak
plater konbinatuak
eta pizzak

Plaza nagusia, 5
OTXANDIO
Tel.: 945 450 248

LORA
TABERNA • OTXANDIO
Tel.: 677 568 580 / 945 450 159 · lorataberna@gmail.com



URREJOLA - OKINDECI



*Jai zoriontsuak
opa deusueguz!*
Artekale, 31
OTXANDIO
Tel.: 945 450 093



lazko txupinazoan ateratako argazkia.



Otxandioko txistulariak. GERARDO ARMENTIA.

Otxandioko txistulariek txupinazoa jaurtita hasiko dituzte aurtengo santamañak, uztailaren 17an

Orain 50 urte sortu zen txistulari taldea, eta taldeko gaur egungo kideak "pozarren" daude udaletxeko balkoira igo eta pregoilari izango direlako

OTXANDIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uztailaren 17an hasiko dituzte santamañak ofizialki, baina hilaren 12an hasita egongo dira ekintzak Otxandion, 22ra arte. Esaterako, uztailaren 12an Gazte Asanbladaren argazki proiektzioa egingo dute, eta hurrengo egunean Gazte Eguna ospatuko dute. Uztailaren 14an, musika izango da protagonista nagusia, Herri Kantu Eguna ospatuko dute eta.

Aurten, Santamaña egunaren bezperan, Otxandioko txistulariak igoko dira herriko balkoira pregoia irakurtzera eta jaiei hasiera ematera. "Poazarren gaude geu garela-ko aurten txupineroak", adierazi dute taldeko kideek. Gainera, urte guztian zehar herrian egin duten "lanaren saria" dela esan dute txistulariek.

50 urte igaro dira Otxandion txistulari taldea sortu zutenetik,

Puro Relajo, Joselu Anaiak, Nogen, Skakeitan, Sara Hebe eta Lotxo taldeak egongo dira jaietan

eta, harrezkero, "gorabeheretz" jositako urteak bizi izan dituztela aitortu dute taldeko kideek. "Tal-deak urte gogorrek pasatu eta gero,

badirudi bolaba on batean gaudela eta taldeak oraingoz etorkizuna baduela", gaineratu dute. Egun hamabi txistularik osatzen dute Otxandioko taldea, tartean hiru gaztetxok. "Txistuarena, beste gauza batzuen moduan, moda kontu bat dela esan daiteke, eta momentu honetan ez dago modan. Hala ere, musika eskolan herriko hiru gazte txistua jotzen ikasten dabiltzala jakitea oso pozgarria da", aitortu dute.

Txupinazoa jaurti ondoren, danborrada egongo da, urtero lez, eta Mugi Panderoak erromeria taldeak emango dio amaiera egunari.

Bigarren asteburuan ere hainbat ekintza egongo dira Otxandion. Tartean, Puro Relajo, Joselu Anaiak, Nogen, Sakakeitan, Sara Hebe eta Lotxo taldeen kontzertuak, besteak beste. Horrez gainera, azken urteetan lez, 1936ko bonbardaketan hildakoak omenduko dituzte.

Ondo pasau jaixetan!!
945 45 03 01
info@koikiliaterpetxea.eus
Arte kale 17, Otxandio
www.koikiliaterpetxea.eus
NATURA · EUSKARA · KIROLA · PERTSONAK

HONTZA EXTREM
DENONTZAKO ABENTUA PATEKA

Tel.: 633 468 947 / www.hontzaextrem.com

Sara Hebe: “Gure birako azken kontzertuetarikoa izango da eta Otxandion indarrez beteriko show-a eskaini gura dugu”

Aurten kaleratutako 'Politicalpari' izeneko disko berria aurkezteko biraren barruan, Sara Hebe rapera argentinarrak zuzeneko eskainiko du Otxandion



Sara Hebe Merino
Musikaria

Argentina | 1983

dugula uste dut. Letrei dagokienez, ez dakit zer esan. Kosta egiten zait neuk idatzitako letraz berba egitea. Barruan sentitzen dudana letretan islatzen ahalegintzen naiz. Baina gaur egungo nire letrak sasoi batekoak baino gehiago gustatzen zaizkidala esan dezaket. Garapen baten ondorioa izango da beharbada. **Zure letrak zuzenak eta aldarrikatzaileak dira. Feminismoari buruz abestu izan duzu. Hona etorri zaren urteetan, sentitu duzu borroka feminista gero eta indartsuago dagoela?**

“**Disko berrian badago eboluzio bat musikalki. Soinu modernoagoak bilatu ditugu, eta lortu dugula uste dut**”

Lehenengo esan gura dut ez dagoe la feminismo bakarra. Feminismoa barik, feminismoak daude. Feminismoak hazi egin dira eta masiboagoak bihurtu dira, bai. Uste dut begi-bistakoa den zerbait dela. Jaialdietan zein hedabideetan gero eta oihartzun handiagoa dute, hein batean, kasu egitea beste erremediorik ez zaielako geratu. Esaterako, aurreko urteetan baino tematika feministagoa duten jaialdietan jo dugu aurten. Emakume ahots gehiago entzun ditut. Mainstream-a edo korrante nagusia horrelako mugimenduak bere egiten saiatzen da. Hori aho biko arma bihurtu

MUSIKA • JOSEBA DERTEANO

Sara Hebe rap-kantari argentinarrak mezu zuzeneko letrak estilo anitzeko musikagaz uztartu ditu bere disko berrian. Disko horretako abestiak uztailaren 20ko kontzertuan aurkeztuko ditu Otxandion. Jaialdi berean, Skakeitan eta Nogen taldeek ere joko dute.

Europar zehar egiten zabiltzan biraren barruan, Bilbon eta Donostian eskaini dituzu kontzertuak. Zelako harrera sentitu duzu euskal zaleen aldetik?

Oso ona, benetan. Ez da izan Bilbon, Donostian edo Gasteizen kon-

tzertuak eskaini ditudan lehenengo aldia, eta Euskal Herrira natorren bakoitzean oso *feedback* ona sentitzen dut euskal zaleen partetik. Denboragaz lagunak ere egin ditut. La Basu da euretako bat, rape-kantari oso ona. Orain urte batzuk abesti bat elkarregaz grabatu genuen. Beraz, gaur egun jasotzen dudana berotasuna orain urte batzuk ereindako haziaren ondorioa da.

Azken hileetan hiriburu askotan eskaini dituzu kontzertuak. Otxandio, oster, herri txiki bat da. Zer itxaroten duzu kontzertu horretatik? Denok elkarregaz une atsegin bat

igarotzea. Sekula ere ez dut Otxandion jo, eta ilusioa egiten dit. Disko berriko lanak aurkeztuko ditugu. Musika estilo anitzen entsalada

“**Euskal Herrira natorren bakoitzean ‘feedback’ oso ona sentitzen dut euskal zaleen partetik**”

bat izango da: rocka, reggaetoia, cumbia, hip-hopa... Batzuetan kosta egiten zait gure musika estiloa definitzea, egia esanda. Onen-one-

na kontzertura joan eta zuzenean ezagutzea da. Hori bai, gure birako azken kontzertuetarikoa izango da eta Otxandion indarrez beteriko show-a eskaini gura dugu. Energiaz beteriko zuzenekoak eskaintzen ahalegintzen gara beti.

Aurten zure ibilbideko laugarren diskoa kaleratu duzu, 'Politicalpari' izeneko. Musikalki eta letrei dagokienez, badago aldaketarik edo eboluziorik aurreko lanekin alderatuta? Ez nuke esango aldaketa sakonik dagoenik. Aurreko diskoekiko ildo mantentzen dugu. Musikalki badago eboluzio bat. Soinu modernoagoak bilatu ditugu eta lortu

“**Feminismoak hazi egin dira eta masiboagoak bihurtu dira. Hori begi-bistakoa den zerbait dela uste dut**”

daiteke eta baditu bere arriskuak, baina, tira, hori beste gai bat da. **Agurtzeko, euskaraz zerbait esango diguzu?**

'Agur, eskerrik asko!'. Otxandion inguruan bizi diren denak kontzertura gonbidatu gura ditut. Ondo pasatuko dugu. Ordura arte!

JAIIAK

ZORNOTZA

2019ko UZTAILA



*Zorrotzako jaietan egunak zein gauak denonak dira.
Ez beti da ez!*



Zornotzako jaiak

Uztailak 15, astelehena

20:00 Herriko plazan. **Pregoia, txupinazoa, Zornotzako Musika Bandaren ‘Aupa Gaztiak’ eta kalejira, Ondalan, Audio, Bermeoko Kietb eta Amorebieta-Etxanoko erraldoi eta buruhandien konpartsak, gaitero eta txistulariak.**

21:00 Euskal Herria plazan/Kalbarioa Kaleko Musika **REBELDES DEL SWING**

21:00 Harrison- Luis Urrengoetxea kalean **Kaleko Musika ZARATAK18 ELEKTROTXARANGA** Ant. Lutaber

22:00 Zelaieta parkean Filma **ZORNOTZARRA NAZ ETA HARRO NAGO**

23:00 Zubiondo plazan **Kontzertua ONINTZE**

Uztailak 16, martitzena

Goizean **Larrea** KARMENGO JAIA. Meza, bertsolariak, **UDABARRI** dantza taldea, eta Euskal erromeria **TRIKI PIU** taldeagaz. Ostean, **Larreako landetan HERRI KIROLAK URREZKO AIZKOLARI TXAPELDUNEN LIGA Iker Vicente (Otsagi) vs Julen Alberdi ‘Txikia IV’ (Azkoitia).**

11:00 Herrian zehar **UDAZKEN** taldearen kalejira.

18:00 Amorebieta IV frontoia **PILOTA PARTIDU PROFESIONALAK Altuna-Etxebarria vs Arrien-Morgaetxebarria Altuna III-Rezusta vs Elezkano-Zabaleta** Ant: Lagun Onak pilota elkartea.

18:00 Zubiondo parkean – Herriko plaza **BIZIKLETA EGUNA** Ginkana Herriko plazan Ant: Urgozo iturria txirrindulari elkartea.

19:00 Andra Mari plazan/ Gernika plazan/ Zezilia Gallartzagoitia. 20:30 San Juanen/Kalbarioan/ Luis Urrengoetxean Kaleko musika **GURETZAT FANFARREA.**

20:00 Gernika plazan **Dantza Erakustaldia: bachata, bolero, paso doble...** Ant: Gernika plazako ostalariak.

21:00 Zelaieta parkean Magia **JORGE BLASS.**

23:00 Zubiondo parkean Kontzertua **GOZATEGI.**

Uztailak 19, barikua

13:00 Kalbario plazatik **KUADRILLEN KALEJIRA** Ant: Zornotzako kuadrillak.

15:00 Ixerbekoa **KUADRILLEN ARTEKO BAZKARIA.** Ant: Zornotzako kuadrillak

17:00 Herriko plazan **ALDI BEREKO 50 XAKE PARTIDA** Ant: Club de ajedrez Zornotza.

20:30 Zelaieta parkean **TXISTULARIEN XX. KONTZERTUA** **Artista gonbidatuak: Mikel Urdangarin, Alex Sardui, Unai Ormaetxea, Peio Ospital, Norton, Beñat Egiarte, Xabi Solano, Jaurne Gaminde, Keu Agirretxea, Niko Etxart, Aitor Gorosabel eta AIDAE.** Ant: Udazken txistu taldea.

22:00 Ixerbekoan **BELDUR BARIK GUNEA** Eraso sexistarik gabeko jaiak. (Informazioa, pegatinak, txapak...).

23:00 Ixerbekoa Kontzertua **AMPARANOIA** Dj jaia, **OIHAN VEGA.**

23:00 Zubiondo Kontzertua **ALMA MEXICANA** Boleroak eta munduko abestiak.

Uztailak 20, zapatua

09.00 Ibaizabal errekan **UMEEN ARRANTZA LEHIAKETA** Ant. Errekamendi.

10:00 Zubiondo parkea **BASKET 3x3.** Ant/Org: Zornotza Saskibaloï taldea.

10:30 Zubiondo parkea **MARMITAKO LEHIAKETA** Ant: Zornotzako kuadrillak **Izan zaitetz Ahobizi/Belarriprest!** Badator simulakroa!

11:00 Gure Kirolak bolatokian **UMEENTZAKO BOLO TXAPELKETA** Ant: Club bolos Zornotza.

17:00 Urbano Larruzea kalean **XXXVII. XAKE TXAPELKETA Agustín Zamakona Memoriala** Ant: Club de ajedrez Zornotza.

17:00 Amorebieta IV frontoian **KARMENETAKO XII. ESKU-PILOTA TXAPELKETA Federatuen finalak.** Ant: Lagun Onak pilota elkartea.

18.00 Gernika plazan **Diskofesta.** Ant: Gernika plazako ostalariak.

20.00 Kalbarioan/ **Luis Urrengoetxea** Kaleko Musika **KITTU.**

21.00 Gure Kirolak bolatokian **KARMENETAKO IX. BOLO TXAPELKETA** Ant: Club bolos Zornotza.

22:00 Ixerbekoan **BELDUR BARIK GUNEA.** Eraso sexistarik gabeko jaiak. (Informazioa, pegatinak, txapak...).

23:00 Zubiondo plazan Kanp berbena **LONDON ORKESTRA.**

22:30 Ixerbekoan Kontzertua **IRA** Dj jaia. **PROYECT SHOW**

24:00 Ixerbekoan **Alkoholemia Karpa** Autobus zerbitzu berezia bueltatzeko Arratia eta Galdakaora. Tren zerbitzu berezia. Euskotren.

Uztailak 21, domeka

10:00 Zubiondo parkean **AMOREBIETA-ETXANOKO VIII. JAI LASTERKETA** Ant: Zornotzako korrikalariak.

11:00 Jauregibarrian **ONTZI-MODELISMOAREN ERAKUSTALDIA** Ant: Bilbo Model Club.

11:00-14:00/16:00-19:00 Euskal Herria plazan **UMEENTZAKO EGURREZKO JOLASEN PARKEA.**

12:00 Jauregibarria parkean **ARKU-TIROA.** Ant: Ostadar.

12:00 Amorebieta IV frontoian **ZORNOTZAKO V. MASTER KAIOLA** Gazteak eta Sub 22. Finalak. Ant: Lagun Onak pilota elkartea.

16:00 **TXIRRINDULARITZA** Junior mailako txapelketa Irteera eta helmuga: **Nafarroa kalean.** Ant: Sociedad Ciclista Amorebieta.

18:00 Gernika Plazan Musika kalean **KITTU.**

18:00 Zelaieta parkean **ZORNOTZAKO ALTXORRA.** Ginkana euskaraz 10-14 urtekoentzat. Lag: Ametsetan.

20:00 Herriko plazan Antzerkia **BARSANTI TEATROA ‘Kale Gorrian’.**



BROTXAKETAREN ETA
IJEZKETAREN ALORREKO
KIDE GLOBALA

www.ekin.es

22:00 Zubiondo plazan Kontzertua SWINGTRONICS .
Uztailak 22, astelehena
11:00-14:00 / 16:00-19:00 Andra Mari plazan GAZTETXOENTZAKO MULTIABENTURA PARKEA (8+ urte).
12:00 Herriko plazan Kontzertua ADEBAN . Euria eginez gero, Zelaieta parkean.
17:00 Ibaizabal errekan KUADRILLEN ARTEKO PIRAGUA JAITSIERA. Ant: Zornotzako kuadrillak.
18:00 UMEEN DANBORRADA Ibilbidea: Gudari, San Pedro, Luis Urrengoetxea, Larrabide, Karmen, Konbenio; Gregorio Mendibil, San Juan, San Miguel, Zelaieta.
18:00 Amorebieta IV Frontoian XII. PALA TXAPELKETA Herriko Txapelketako finalak EMAKUMEEN III. PALA TXAPELKETA Finalak. Ant: Erdu Pilotan.
21:30 Herriko plazan BERTSOLARIAK: AITOR MENDILUZE, IGOR ELORTZA, MIREN AMURIZA, JULIO SOTO. Gai jartzailea: Zornotzako Eta Abar Bertso Eskola. Euria eginez gero, Zelaieta parkean.
22:30 Zubiondo plaza Kontzertua ANITA PARKER .
Uztailak 23, Asteartea
11:30-14:30/16:00-18:00 Herriko plazan UME ETA GAZTETXOENTZAKO SIMULATZAILEEN PARKEA ASEBI mahai informatiboa goizean.
18:30 Ixerbekoan KUADRILLEN ARTEKO TORTILLA TXAPELKETA. Ant: Zornotzako kuadrillak
20:00 Ixerbekoan KUADRILLEN ARTEKO PLAY BACK LEHIAKETA Ant: Zornotzako kuadrillak.
23:00 Zubiondo plazan Kontzertua HUNTZA .
Uztailak 24, eguaztena
11:00-14:00/16:00-18:00 Zelaieta parkean GAZTETXOENTZAKO FUTBOL3x3, BUBBLE SOCCER ETA BUNGEE RUNNIN.
20:00 Gernika plazan/Andra Mari plazan/Zezilia Gallartzagoitian Kaleko musika GAZTELEKU FANFARREA .
20:00 Amorebieta IV frontoian. Kontzertua BENITO LERTXUNDI Leku mugatuak edukiera bete arte. Ateak 19:30ean zabalduko dira.
21:00 Kalbario/ Luis Urrengoetxea Kaleko musika GAZTELEKU FANFARREA .
21:30 Zubiondo plazan BELDUR BARIK GUNEA Eraso sexistarik gabeko jaiak. (Informazioa, pegatinak, txapak...).
22:00 Zubiondo plazan Kontzertua NØGEN ESNE BELTZA .
24:30 Ixerbekoan Erromeria TRIKIZIO Autobus zerbitzu berezia bueltatzeko Arratia eta Galdakaora.
Uztailak 25, eguena
Goizean, Zezilia Gallartzagoitian BASERRITARREN AZOKA . Ant: Enba.
Egun guztian AITITE-AMAMEN JAIA : meza, aureskua, erromeria... Izena emateko: Nafarroa zentroan.
11:00-14:00/16:00-18:00 Gernika plazan UMEENTZAKO PUZGARRIEN PARKEA .

17:00 Amorebieta IV frontoian KARMENETAKO XII. ESKU-PILOTA TXAPELKETA Eskolarteko finalak. Ant: Lagun Onak pilota elkartea.
18:00 Herriko plazan Antzerkia/teatro TRAPU ZAHARRA ‘Turisteando’.
17:00 Zelaieta parkean KUADRILLEN ARTEKO HERRI KIROLAK Ant: Zornotzako kuadrillak.
19.30 Amorebieta IV frontoian OMENALDIA LAGUN ONAK 40. URTEURRENA Jose Luis Larrinaga eta Jesus Hormaetxea sortzaileei.
20:00 Zelaieta parkean Umore ikuskizuna BOCA BEATS .
22.30 Jauregibarrian SU ARTIFIZIALAK Piroteknia Zaragozana.
23:00 Zubiondo plazan Erromeria ZIRKINIK BEZI!
Uztailak 26, barikua
•20:00 Andra Mari plazan/Zezilia Gallartzagoitian/Gernika Plazan Kaleko musika MARIACHI PLATINO DE MEXICO .
21:00 Kalbarion/Euskal Herria plazan Kaleko musika BALKAN PARADISE ORKESTRA .
22:00 DANBORRADA Ibilbidea: Txiki Otaegi, San Pedro, San Miguel, San Juan, Nafarroa, Ibaizabal, Gudari, Herriko plaza.
22:30 Ixerbekoan BELDUR BARIK GUNEA Eraso sexistarik gabeko jaiak. (Informazioa, pegatinak, txapa...).
23:30 Zubiondo plazan Kontzertua SERAFIN ZUBIRI EN ESENZIA ORKESTRA .
23:30 Ixerbekoan Kontzertua KAOTIKO, WILLIS DRUMMOND .
Uztailak 27, zapatua
12:00 Zezilia Gallartzagoitian/ Andra Mari plazan/ Gernika plazan Kaleko musika TRIKI PIU PAND .
12:30 Luis Urrengoetxean Kuadrillen kalejira musikatua. Ant: Zornotzako kuadrillak .
15:00 Ixerbekoan KUADRILLEN ARTEKO BAZKARIA. Ant: Zornotzako koadrilak.
16:00 Zelaieta parkea AMOREBIETA-ETXANOKO III. DUATLOI TXIKIA. Ant: Amorebieta-Etxanoko Triatloi taldea.
17:30 Ixerbekoan KUADRILLEN ARTEKO GINKANA. Ant: Zornotzako koadrilak.
17:30 Ixerbekoan 11 Kolore tailerrak.
19:00 Gudari kalean - Herriko plazan Zornotza 11 KOLORE Aniztasunaren kalejira.
19:30 Gernika plazan MOZORRO LEHIAKETA eta DJ. Ant: Gernika plazako ostalariak.
21:30 Luis Urrengoetxean Kaleko musika ZO ZONGO ‘Rockalean’.
22:00 Zubiondo plazan BELDUR BARIK GUNEA. Eraso sexistarik gabeko jaiak. (Informazioa, pegatinak, txapak...).
23.00 Zubiondo plazan Kontzertua DVICIO, DJ jaia, Los40 Classic .
24:00 Ixerbekoan Alkoholemia Karpa.
24:00 Ixerbekoan Erromeria LEHIAN Autobus zerbitzu berezia bueltatzeko Arratia eta Galdakaora. Tren zerbitzu berezia. Euskotren.



Azkonizaga

Edari banaketa

GARAGARDOAK · ARDOAK · LIKOREAK
ESNEA · URA · FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com



ALB ERDI HARATEGIA



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658
SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722



Z@S informatika

ORDENADOREAK
OSAGARRIAK
KONPONKETAK
MANTENIMENDUA

ENPRESETARAKO ZERBITZUA

Tel.: 94 630 12 12
info@zasinformatika.com
Gregorio Mendibil 9 behea
(Amorebieta-Etxano)

“Txupinazoak elkarteak ezagutzera emateko balioko digu, jende askok ez gaitu oraindino ezagutzen eta”

Aniztasun funtzionala duten gazteei laguntzen dien AIDAE elkarteak 25 urte egin ditu eta elkarteko kideek botako dute Karmen jaietako txupinazoa



Julia Orbe Moreno
AIDAE elkartearen
presidentea
Zornotza

TXUPINAZOA • JOSEBA DERTEANO

1994an, Zornotzako hainbat gurasok indarrak batu zituzten AIDAE elkartearen sortzeko. Harrezkero, aniztasun funtzionala duten pertsonekin lan egitea eta euren aisialdirako aukerak eskaintzea izan dute helburu. Durangaldean dagoen tankera horretako elkarterik zaharrenak 25 urte egin ditu aurten eta, hori dela-eta, elkarteko kideek piztuko dute Karmen jaiei hasiera emango dien txupinazoa, uztailaren 15ean.

Pozik zaudete txupinazoa botatzeko aukeragaz?

Bai. Urteetako lanaren errekonozimendua da. Txupinazoak elkartearen ezagutzera emateko balioko digu, jende askok ez gaitu oraindino ezagutzen eta, nahiz eta urte askoko ibilbidea dugun atzetik.

Bide luzea egin duzue. 1994an, bazegoen AIDAEren moduko beste elkarterik Durangaldean?

Ez, geu izan ginen lehenengoak. Bizkaian Gorabide elkartearen zegoen, baina herriko gazteen beharrezan-

ordutik hona neuk jarraitzen dut. **Gaur egun zenbat lagun zabilzate elkartean?**

30 bat gazte gaz lan egiten dugu eta aisialdi inklusiboa eskaintzen diegu. Egiturari begira, bazkideak ditugu eta euren laguntza eskertzen da.

Zer aisialdi mota eskaintzen duzue?

Ahalik eta aisialdirik zabalena eskaintzen saiatzen gara. Esaterako, asteburuei begira antolatzen

"Herriko gazteen beharrezanetara gehiago zentratuko zen elkarte baten beharra ikusten genuen 1994an"

ditugun ekitaldiak daude. Hilean behin, ibilaldi bat egiten dugu. Urtean zazpi-zortzi bider aterpetxeetara ere joaten gara, asteburu-pasa. Uztailaren eta abuztuaren artean, aste biko irteera luzeagoak egiten ditugu, Euskadiko, Nafarroako edo Kantabriako aterpetxeetara.

Maiatzean, 25. urteurrena ospatzeko ekitaldia egin zenuten Zornotzan. Zelan joan zen?

Oso ondo. 100 bat lagun batu ginen bazkaltzeko. Ondoren, jai txiki bat egin genuen.

Omenaldi bat ere egin zizuten?

Sorpresa handia izan zen. Oroigarri bat eta lore sorta bat erregalatu zizkidaten. Oso polita izan zen.

Egingo duzue beste ekitaldirik urteurrena ospatzeko?

Irailaren 13tik 15era azoka gastronomiko bat egingo dugu plaza gorrian. Askotariko postuak egongo dira, bazkari bat egingo dugu, gaztetxoentzat puzgarriak ipiniko ditugu... Ilusio handiz itxaroten dugun ekimena da.

"Irailaren gastronomiaz azoka bat egingo dugu; ilusioz itxaroten dugun ekimena da"

tan gehiago zentratuko zen elkarte baten beharra ikusten genuen eta, horregatik, hainbat gurasok AIDAE sortzea erabaki genuen.

Urte hauetan guztietan zeu izan zara elkarteko presidentea?

Etapan bitan izan naiz presidentea. Lehenengoan, elkartearen sortu zene-tik 2002ra arte, gutxi gorabehera. Gero, utzi egin nuen, beste zeregin batzuk nituelako. Hiru bat urteren ondoren, bueltatu egin nintzen eta



Ondo pasa jaietan!
ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA



0 -18 URTE
HAZI eta HEZI gurekin



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA



ibaizabal
IKASTOLA



Larrea z/g - Amorebieta-Etxano - Tel.: 946 732 950
zornotza@ikastola.eus - www.zornotzaikastola.eus

Lehen mailako musika eskaintza egongo da Zornotzan

Zirkinik Bez eta Onintze musikari zornotzarrek kontzertuak eskainiko dituzte etxean



Amparanoia.

ZORNOTZA • A.M.

Onintze bakarlariak eta Zirkinik Bez! erromeria talde zornotzarrek etxean joko dute. Lehenengoak *Punto de partida* lana aurkeztuko du herritarren aurrean. Urte lanpetua izan du abeslariak, izan ere, diskoa kaleratzeaz gainera, hara eta hona ibili da zuzenekoak eskaintzen; horrez gainera, *A la luz de la luna* singlea grabatu zuen, Islandian. Zirkinik Bez! erromeria

Amparanoia agertokietara itzuliko da aspaldiko partez; Zornotzan izango da emanaldietako bat

taldeak ere urte mugitua izan du. Ibilbidean etenaldia egitekoak ziren zornotzarrek, baina, hala ere, kontzertu sorta ederra eskaini dute azken hileetan, eta jaietakoaren euren doinu dantzagarriez gozatzeko aukera ona izango da.

Guztientzako eskaintza

Publiko guztientzako moduko eskaintza egongo da Zornotzako jaietan, beste behin ere. Izen eza-gunez beteta dator aurtengo egitaraua, gainera. Uztailaren 23an, adibidez, Huntza taldeak kontzertua eskainiko du, Zubiondon; besteak beste, *Aldapan Gora* eta *Lasai*, *lasai* abesti ezagunak entzun ahal izango dira bertan. Uztailaren 24an, modan dauden beste talde bik ere eskainiko dute kontzertua: Nøgen eta Esne Beltzak taldeek dantzan jarriko dute Zubiondo

plaza. Rock doinuak atseginago dituztenek uztailaren 26an dute hitzordua, Willis Drummond eta Kaotikoren kontzertuetan. Kaleko doinuek ere protagonismoa izango dute jaietan, IRA rap talde madrildarragaz. Swing doinuak elektronikagaz nahasten dituzten Swingtronics eta Anita Parkerrek ere kontzertuak eskainiko dituzte, uztailaren 21ean eta 22an, hurrenez hurren. Tikitizaleek Gozategiren eta Trikitizoren erromeriekin dantza egiteko aukera izango dute; uztailaren 16an eta 24an izango dira horiek. Bestalde, Dvicio madrildarrek ere doinu dantzagarriez beteriko ikuskizuna eskainiko dute.

Doinu klasikoak ere bai

Uztailaren 24an, Benito Lertxundi euskal kantautoreak kontzertua eskainiko du frontoian. Egun bi geroago, Serafin Zubirik errezitala eskainiko du, En Esencia orkestragaz batera.

Bestalde, uztailaren 19an kontzertu berezia ikusteko aukera egongo da, hau ere bikaina dantzazaleentzat, izan ere, Amparanoia talde historikoak kontzertua eskainiko du Zornotzan, agertokietarako itzulera biran.

Txistularien XX. Kontzertuak hainbat musikari ezagun batuko ditu, uztailaren 19an. Besteak beste, Mikel Urdangarin, Alex Sardui, Unai Ormaetxea, Peio Ospital, Norton, Beñat Egiarte, Xabi Solano, Jaurne Gaminde, Keu Agirretxea, Niko Etxart, Aitor Gorosabel eta AIDAE.

43 urteren ondoren, Zornotzak musika banda du berriro ere

Ekainaren 15ean, bandak kontzertu berezia eskaini zuen itzulera ospatzeko. Zornotzako jaietan ere izango dute protagonismoa, txupinazoan joko baitute festei hasiera emateko



Zornotzako Musika Banda.

MUSIKA • A.M.

Lau hamarkada baino gehiagoren ondoren, Zornotzak bere ondare musikala berreskuratu du. Horrela, 43 urteren ondoren, bertako musika bandak berriro ere herriko kaleak girotuko ditu jaietan. Uztai-

Txanpi saxo-jotzailea bandako kidea da berriro ere; 1976an ere bazegoen bandan

laren 15ean, txupina jaurti eta gero, kalerik kale arituko da banda, Aritz Labradoren gidaritzapean.

Musika Eskolagaz hartu-emanean, gaur egun hogeit bat lagunek

osatzen dute taldea, baina, aurrera begira, familia handitzea gustatuko litzaioke Labrador zuzendariari. Hainbat adin tarteko zornotzarrek osatzen dute banda municipal, tartean ikasle gazteek. Baina, horietatik aparte, 1976an [banda desagertu zen urtea] kide izandako Txapi saxo-jotzailea ere bada bandako kide gaur egun.

Aurkezpen kontzertua

Labrador zuzendariak izaera desberdina eman gura dio hasieratik bandari. Horrela, deneriko musika motak jorratzen dituzte, bandaren jarduna kaleko emanaldietara soilik ez mugatzeko. "Aurrera be-

gira, kontzertu propioak eskaintzea litzateke gure asmoa", azaldu zuen Labradorrek berak bandaren itzulera iragarri zuen prentsaurrekoan. Musika amerikarra, moderno, tradizionala eta euskal

Aurrera begira, musika banda Zornotzako agente kultural garrantzitsua izatea gura dute

melodia batzuk ere jo zituzten bertan. "Banda berriro ere Zornotzako agente kultural garrantzitsuenetariko bat izatea gura dugu", gaineratu du.

Ondo pasa Jaietan!

#IZAR50yearsinternational

f t i y l i n

“Positibotasuna eta dibertsitatea bilatu ditut kartela egiterakoan, jaiak denontzat direlako”

Aketz Zubiaren 'Danok bat' lanak lortu du herritarren botorik gehien, eta 1.000 euro irabazi ditu



ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Aketz Zubiak (Bermeo, 1983) publizitate agentzia batean lan egiten du, Bartzelonan. Diseinatzaileria ez bada ere, diseinuaren mundua gustatzen zaio, eta, aurretik, bere lanak iragarriko ditu Zornotzako jaiak. Aurkeztutako 15 kartelen artean, epaimahaiak bost aukeratu zituen, eta horiek bozketak fasera pasatu ziren. Lehiaketako sariaren zati bat Tailandiara egingo duen bidaian erabiliko du.

Pozik hartuko zenuen saria.

Lehenengoz aurkeztu naiz, eta pozik hartu dut, jakina. Lanean emandako denbora eta ipinita-

ko ilusioa kontuan hartuta, eta ideia garatzen egindako lanaren ondoren, finalisten artean egotea poztekoa da. Irabazlea herritarren botoek erabaki izanak proposame-

"Irabazlea herritarren botoek erabaki izanak proposamena gustatu zaiela esan gura du"

na gustatu zaiela esan gura du eta horrek indarra ematen du.

Herritarrek aukeratu izanak beste balio bat ematen dio?

Bai. Euren jaiak dira, eurek eraba-

ki behar dute zer duten gurago. Hala ere, lehenengo balorazio bat egiteko, erabaki batzuk hartzeko, adituak egotea eskertzekoa da. Bien arteko oreka ondo ikusten dut.

Zer erakutsi gura du zure kartelak?

Ahal dela, jaien laburpen txiki bat egiten ahalegintzen naiz beti, herriko ikonorik adierazgarrienak islatuz. Horretarako, danborra hartu dut elementu nagusi moduan. Zelanbaiteko ontzi moduan

Jaien laburpen txiki bat egiten ahalegintzen naiz beti, herriko ikonorik adierazgarrienak islatuz"

erabili dut, eta bertatik ageri dira danborradako zuzendaria, herriaren ikoniko bihurtu den Nagelen eskultura, sukalkiaren erreferente bat eta esku pilotako pilota. Jaietako partaide lez, deneriko jendea ere islatu gura izan dut. Positibotasuna eta dibertsitatea bilatu ditut, jaiak denontzat direlako. Jaietako poztasuna transmititzeko, kolore alaiak erabili ditut.

Ez da lehenengo aldia horrelako lehiaketa batera aurkezte zarena.

Ez. Orain urte bi Mungiako eta Bermeoko jaietako kartel lehiaketak irabazi nituen, eta, iaz, Kataluniako herri bateko lehiaketa irabazi nuen. Bermeon eta Durangon ere finalista izan naiz, adibidez.

Bermeokoa izanda, ezagutzen dituzu Zornotzako jaiak?

Bai, ibilitakoa naiz. Baina aurretik ez dut joateko aukerarik izango. Batez ere, gau giroa ezagutzen dut. Kontzertuak eta txosnetako giro sanoa gustatzen zaizkit gehien.

Cooco Comida para llevar **Tel. 94 656 12 06**
 Gora Koroak Jaiak 2019 **Gregorio Mendibil, 7**
 • 48340 ZORNOTZA **cuoco-amorebieta.es.tl**

URTZA TABERNA **Tel.: 94 673 15 57**
Luis Urrengoetxea Hiribidea, 11 Amorebieta-Etxano

HOGANS IRISH TAVERN **Tel.: 94 673 47 58**
 Amorebieta, Etxano
 San Juan Kalea 1, Amorebieta-Etxano

kanbio J A T E T X E A **ASTE BITARTEKO MENUA, ASTEBURUKO MENUA, MENU BEREZIA ETA KARTA**
 Ondo pasa jaietan!
 San Migel Dudea auzoa | AMOREBIETA-ETXANO
 Tel.: 946 730 033

uxarte SAGARDA OGINTZA
 Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815 **www.uxarte.com**
ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN
ASTEAN ZEHAZ ENKARGUZ
 Gutxienez 15 laguneko taldeentzako



ONDO PASA JAIETAN!

Igurco Orue

SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS
IMQ Igurco
 ZERBITZU SOZIO-SANITARIOAK



Igurco Jose Maria Azkuna

SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS
IMQ Igurco
 ZERBITZU SOZIO-SANITARIOAK

Irabazi asteburu pasa zoragarria edo tablet bat!

**Bidali zure argazkiak
irailaren 15era arte**

UDA KO 5. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto 
komunikabideak



Durangaldeko 2018ko
argazkia
IRABAZLEA

Durangaldetik kanpoko
2018ko argazkia
IRABAZLEA



2 KATEGORIA SARITUKO DIRA

- ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

ANTOLATZAILEA

anboto 
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK



Garaiako
Landetxea

EROSKI
Abadiño Zurekin

d7b
databost
informazioa & informazioak

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean



Joseba Tapia, Musikaireren eskutik

MUSIKA
ELORRIO : Uztailak 5

'Vint Anys' lana aurkeztuko du

Kantagintza modernoa eta musika herrikoia uztartzea helburu duen azken lana aurkeztuko du Joseba Tapiak, gaur, Elorrioko plazan, 22:30ean. Folk progresista bat osatu guran, etengabeko berrikuntza bilatu du Joseba Tapiak *Vint Anys* lanean: kantu berria, kantu berritua,

kantatzeko izango den errepertorio berria, batu du. Xabier Berasaluze Leturia panderojole eta lagunagaz hasi zen musika sortzen Joseba Tapiak. Baina hogei urte dira musika bakarka egiten hasi zela. Urteurrenaren aitzakiagaz, proiektu berria hasi du.



Musika eta bertsoak Mendiolako jaietan

JAIK I Donien Atxa jasota hasiko dituzte San Kristobal jaiek Abadiñoko Mendiola auzoan. Uztailaren 9rako, 19:00etarako, ipini dute auzokoek horretarako hitzordua. Datozen egunetarako, kontzertuak, artzai txakur txapelketa, umeentzako jolasak eta tortilla txapelketa izango dituzte, besteak beste, Mendiolan.

Uztailaren 9an

Berakatz zopa, 21:30ean
Afalostean, bertsolariak: Onintza Enbeita, Aitor Bizkarra eta Fredi Paia.

Uztailaren 10ean

Meza, 11:30ean
Dantzariak, 12:30ean
Ardoa, ogia eta gazta, 13:00etan

Uztailaren 12an

Parrillada eta sagardo kupela, 20:00etan
The Cheap and Nasty Boys+ Unidad Alavesa, 22:30ean

Uztailaren 13an

Kotxe klasikoak, 13:00etan
Herri bazkaria, 14:30ean
Jolasak, 16:30ean
Tortilla txapelketa, 19:30ean
Puro Relajo, 21:30ean

Uztailaren 14an

Ugasixo eta bolo txapelketa, 13:00etan
XXIII. Abadiñoko Artzai Txakur Txapelketa, 18:00etan
Errifen zozketa eta txopoa botatzea. Laja eta Lutxurdio trikitilariak

Uztailaren 5ean

ZALDIBAR jaiek
Mendi irteera familiarra, 08:30etik 9:30era udaletxeko plazatik.
Herri kirolak, 12:30ean: aizkolariak eta Iparraldeko jokoak, udaletxeko plazan.
Umeentzat herri kirolak, 17:00etatik 20:00etara.
Pilota partiduak, 18:30ean, Olazarren.
'Euskal Presoak Euskal Jaietara', 18:45ean, elkarretaratzea txosnagunean.
'Erre ke erre' elektrotxarangagaz poteoa, 19:00etan, txosnagunean hasita.
Txokolatada, 19:00etan, udaletxeko plazan.
Kontzertua: Radio revolucion + Kulto kultibo + Anita Parker, 22:30ean, txosnagunean.
Dantzaldia Dj Josemarigaz, 23:00etan, Euskal Herria etorbidean.
Kulero eta galtzontzillo eta tanga martxa, 03:00etan, txosnagunean.

Uztailaren 6an

ABADIÑO irteera
Ipiztera mendi ibilbidea. Ibilbide zirkularra Urkiolako Parketxeak antolatuta. Plazak mugatuak dira eta izena eman behar da: 946814155 telefonoan edo urkiola.parke. naturala@bizkaia.eus posta elektronikoa erabilita.

ABADIÑO musika
Voz y Media (Salvador Amor eta David Diaz), 22:30ean, Bedats tabernan.

DURANGO musika
Amaia Urzainki & Robert Oviedo, 20:30ean, Kurutzesantu museon.

DURANGO musika
Behaketa astronomikoa, 22:30ean, Zuhatzola parkean. Izarra elkarteak antolatuta.

ELORRIO musikaire
Las Maravillas de Mali, 22:30ean, plazan.

Zapatuan trikiti jaialdia egingo dute Iurretako Amatza auzoan



ZINEMA | Asteburuan trikiti doinuak izango dira nagusi Iurretako Amatza auzoan. 5. Trikitixa Jaialdia ospatuko dute zapatuan, aurreko urteetako arrakasta errepikatzeko asmoz. Aurten, arratsaldean barik, eguerdian izango da, 12:00etan.

San Martin jaien barruan antolatu dute jaialdia, eta honako trikitilari hauek arituko dira jotzen: Roberto eta Miren Etxebarria; Mirari, Aintzane eta Zalao; Jokin San Jose eta Zuriñe Gonzalez; Ruben Isasi eta Argibel Euba; Martin eta Olaia; eta Hegoi eta Ainara Petite. Ondoren, bazkaria egongo da.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **kultura@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

ZALDIBAR jaiak

Arku-tiroa, 10:00etan
Olazarko galerian, ume eta nagusientzat.

Zaldibar Arku Taldeko arkularien erakustaldia, 12:30etik 13:00etara.

Gimnastika erritmikoa, udaletxeko plazan, 12:00etan.

Tortilla txapelketa, 12:00etan, eskolan.

Gazte bazkaria, 15:00etan, txosnagunean.

3X3 saskibalo txapelketa, 16:00etan, kiroldegian.

Olinpiadak, 17:00etan, txosnagunean.

Apar festa, 18:00etan, udaletxeko plazan.

Afari merienda herrikoia, 19:00etan, Olea kalean.

Poteoa Matraka elektrotxarangagaz, 19:00etan, txosnagunetik.

Erromeria: Gozo gozo, gauerdian, txosnagunean.

Uztailaren 7an

ELORRIO azoka
Durangaldeko Azoka Ekologikoa, 11:00etan, plazan.

ELORRIO musikaire
Trikitilari Gazteen VI. Txapelketa, 19:00etan, plazan.

IURRETA Amatzako jaiak
Trikitilariekin kalejira, 10:30ean.
Meza nagusia, uraren bedenkazioagaz, 11:00etan.
Auzoko dantzariak, 11:30ean. Ondoren, luntxa.
Herri bazkaria, 15:00etan. Ondoren, karta lehiaketa, igel txapelketa eta umeentzako jolasak.

ZALDIBAR jaiak
Bizkaiko Txirrindulari Eskolen Proba, 10:30ean
Autonomia kalean.
Hasiberriak, alebinak eta infantilak.
Umeen jolas parkea, eskolako patioan: 11:00-13:00/16:00-19:00.

Euskal dantzak, 12:00etan, Zaldua plazan
Bertso saio musikatua: Miren Artetxe, Onintza Enbeita eta Etxahun Lekue, 18:00etan, Zaldua plazan.
‘Prozac’ ikuskizuna (Malas Companias), 20:00etan, udaletxeko plazan.
Jaietako argazkien emanaldia, 22:00etan, udaletxeko plazan.
‘Drakoren semeak’ kalejira piroteknikoa, 22:30ean, Olazar kalean.

Uztailaren 8an

ABADIÑO udako zinema
‘Luis eta Estralurtarrak’, 22:30ean, Muntsaritzen.

AMAIA URZAINKI & ROBERT OVIEDO
Overnight

KURUTZESANTU MUSEOA
Uztailak 6, 20:30etan

Fredi PELÁEZ ORGAN TRIO
Jazzeruena

PLATERUENA
Uztailak 10, 21:00etan

MALAS COMPAÑÍAS ZIRKO TALDEA
Prozak

AURORA ABASOLO PARKEA EURIAREKIN / EN CASO DE LLUVIA: NEVERS IKASTETXEA
Uztailak 13, 19:00etan

JON URRUTIA TRIO
Jazzeruena

PLATERUENA
Uztailak 17, 21:00etan

San Agustín KULTUR GUNEa
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus



IURRETA
San Andres auzoko jaiak
Meza 12:00etan. Ondoren, luntxa.

Uztailaren 10ean

DURANGO musika
Fredi Peláez Organ Trio, 21:00etan, Plateruenan.

URRETA
San Kristobal eguna
Meza, 19:00etan, Azkorako elizan.
Jarraian, sardinak, gozokiak eta edariak banatuko dituzte.

Uztailaren 12an

ELORRIO Musikaire
Garikoitz Mendizabal, Xabi Zabala eta Kaabestri Ensemble, 22:30etan, Lariz Jauregian.

Zinea

:: Durango - ZUGAZA

• **Spider-Man. Lejos de casa**
barikua 5: 19:30/22:00
zapatua 6: 16:45/19:45/22:30
domeka 7: 17:30/20:30
astelehena 8: 18:00/21:00
martitzena 9: 20:00
eguaztena 10: 20:00

• **Yesterday**
barikua 5: 19:30/22:00
zapatua 6: 17:15/19:45/22:30
domeka 7: 18:00/20:30
astelehena 8: 18:30/21:00
martitzena 9: 20:00
eguaztena 10: 20:00

• **Los muertos no mueren**
barikua 5: 22:00
zapatua 6: 19:45/22:30
domeka 7: 20:30
astelehena 8: 21:00
martitzena 9: 20:00
eguaztena 10: 20:00

• **Toy Story 4**
barikua 5: 19:30
zapatua 6: 17:15
domeka 7: 16:30/18:30
astelehena 8: 18:30

:: Zornotza - ARETOA

• **Los Japón**
barikua 5: 20:15
zapatua 6: 19:30/22:00
domeka 7: 20:00
astelehena 8: 20:15

“Ahotsa eta pianoa dira emanaldiko protagonistak, sorpresekin batera”

'Overnight' emanaldiagaz gozatzeko aukera egongo da zapatuan, 20:30ean, Kurutze Santu museoa

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Uda Giro programaren barruan, 'Overnight' bidaia musikala eskainiko dute zapatuan Amaia Urzainkik eta Robert Oviedok.

Zer da 'Overnight'?

Sentimendu desberdinak pizten dituen gau bat azaltzen ahalegintzen gara. Errepertorioa osatzeko, momentu horretara egokitzen diren abestiak aukeratu ditugu; abestien arteko trantsizio lana egiten duten abestiak Robert Oviedok konposatu ditu. Txikiak dira, baina oso adierazgarriak, entzuleari ikuskizunean kokatzen lagunduko diotenak. Koherentzia bat mantentzen ere ahalegindu gara, abesti zein autoreekin: amerikarrak eta garaikideak dira denak. Ahotsa eta pianoa dira programaren protagonistak, baina sorpresak ere egongo dira, emanaldia aberasten dutela uste dugulako.

Gauean gertatzen diren egoera emozionalak ziren proiektuaren abiapuntua. Robert musikaria da ogibidez, eta konposatzaile lez zerbait egin gura zuen. Horixe izan da abiapuntua. Nire erronka abesteko ezaugarriak hobetzen lagunduko didaten abestiak aukeratzea da. Urte eta erdi daramagu proiektu hau lantzen. Ikusleari zerbait erakargarria eskaini gura genion.

Zuena ez da ohiko eskaintza.

Orokorrean, ez gaude prest musika lirikorako. Normalean, kontzertu pribatua egiten dugu emanaldia publikoaren aurrean aurkeztu aurretik, eta itxaroten genuena baino harrera hobea eduki zuen *Overnight*-tek. Gu ere lasaiago geratu ginen. Ez dago aukera askorik musika lirikoko kontzertuak eskaintzeko, eta, horrela, gu ere lasaiago goaz. Gure helburua ikastea eta disfrutatzea da. Hurrengo proiektua euskara hutsean egin gura dugu, eta musika guztia guk geuk konposatutakoa izatea. Musika klasikoa izango da, euskal folk ukituagaz

Kontzertuak lotzeko aukera gutxi, beraz.

Esaterako, Arantza Arrazola, San Agustin kulturguneko ardura-duna, denerik eskaintzen ahalegintzen da. Baita herriko artistei bultzada bat ematen ere. Aurrekoan, adibidez, Bogoroditsieren kontzertua ere programatu zuen. Ezkurdiko kioskoan izan zen, eta oso polita izan zen hori. Durangoko txokoak berreskuratzeko ariketa bat da hori, azken finean. Gu ere ahalegintzen gara horretan. Zapatukoan, taula baxua izango da, eta argiekin ere jolastuko dugu. Musika lirikoa, pianoa eta abeslaria baino ez dira egoten; baina gu aldaketak egiten saiatzen gara,



Amaia Urzainki Beristain

Sopranoa
Eibar | 1965

gauza txiki horiek ere berezi egiten dutelako ikuskizuna.

Oviedok eta zuk hainbat urte daramatatzue elkarregaz abesten.

“

Hurrengo proiektua euskara hutsean izango da, eta guk konposaturiko musikagaz, gainera”

—

Meritua Robertena dela esango nuke. Esan bezala, musika da bere ogibidea, eta ohitua dago abeslariarekin lan egitera. Eta, pentsa, abeslariok nahiko anarkikoak gara [barrez]. Abeslariak sentitu egin behar du abesterakoan, eta horrek aldaketak dakartza aurrez adosturikoan. Bera oso ona da gero hori zuzentzen. Abesten dudanean nire sentimenduak adierazten ditut.

Urte askoan koruan ere abestu duzu. Zelan gurago duzu abestu, bakarka ala taldean?

Bakarka aritzea biluztea bezalakoa

da, eta gogorra egiten da. Zuk duzun ikuspuntua agertzen duzu, eta behin plazara irtenda, gainerakoek epaitu egiten zaituzte, onerako zein txarrerako. Baina, beste alde batetik, asko ikasten ari naiz horri eskerrak. Beharbada, txikitatik ikasi beharko litzatekeen zerbait da. Bestalde, nire ustez, egokiena taldean abestea litzateke, European ohikoa den bezala: laukotean, seikotean edo zortzikotean. Baina oso zaila da interes eta konpromiso maila bera duen jendeagaz elkartzea.

Elorrioko Portalekuko Gau Giron D´Caprichoko Danieuris eta Daniellis Moya ahizpen doinu kubatarrak egongo dira entzungai

MUSIKA • A.M.

Musikari kubatarrek ezagunak dira Duragaldean, izan ere, hainbat bider eskaini dituzte emanaldiak bertan. Uda honetan biran dabil-tza Euskal Herrian, eta hurrengo geldialdia Elorrioko Portalekuko Gau Giro jaialdian egingo dute. Uztailaren 4an izango da kontzertua, eguaztenean, 21:00etan.

Besteak beste, Durangoko Tabira auzoko jaietan egon dira kantatzen hile hauetan. Baita Otxandioko

D´Capricho bikotearen kontzertua uztailaren 4an izango da, 21:00etan, Elorrion

Gau Giroko hurrengo kontzertu biak Wood Strings eta Raitx taldeenak izango dira

Mekoleta auzoko jaietan ere. Beraz, doinu kubatarren jarraitzaileek Elorrion izango dute hurrengo aukera.

Gau kulturalak

Gau Giro kontzertu sorta uztailaren 4an hasi zen, Gartxot bakar-lariaren emanaldiagaz. Kontzertu bi gehiago geratzen dira aurretik: Wood Strings (uztailak 18) eta Raitx (uztailak 25).





Estetika gida

anboto

Ile-apaindegia

NUKLEO
ileapaindegia

946 582 996

Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO

Tel.: 946 216 491

Belardenda eta dietetika

OSASYN – ETXEA
BELAR-DENDA eta DIETETIKA

40 urte baino gehiagoko esperientzia

NIK AHAL DUT

PROMOZIOA MARTXORAKO ETA APIRILERAKO
DIETA PERTSONALIZATUA
4 kontsulta = 40 euro
+
5 euroko txartela produktuak erosteko

AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA

Ermodo kalea, 13 (Madalena galeriak) - DURANGO
Tel.: 688 730 694 - osasunetxea@hotmail.com
Herboristeria Osasun Etxea

Ile-apaindegia

Salón de belleza

M^a Jesús Luque

UNISEX ILE-APAINDEGIA

Kurutziaga kalea, 9 - DURANGO

946 81 43 89

Iunik
Jon Sopelana

IUNIK | Udan murgilduta gauden honetan, eguzki izpien eraginetik babesteko aholkuak eskaini ditu Jon Sopelanak. Abuztuan bederatzi egunez itxiko dute Iunik, eta udako gainerako egunetan bezeroen zerbitzura egongo dira. Bestalde, ume sahararren aldeko ekimen batean parte hartuko duela ere aurreratu du.

Udan eguzkia hartzeraz joatea ohikoa denez, zer aholku emango zenuke?
Gure babesleak dituen eguzki-iragazkiak errebisatzea komeni da. Alde bategatik, azaletik gure organismoan sartzen ari garenaz jabetzeko, eta, bestetik, ingurunea kutsatuko duen ala ez jakiteko. Iragazki mineralek ispilu babeslea sortzen dute gure azalean, eguzki izpietatik babesteko. Hala ere, babeslerik onena ere ez da eraginkorra izango ondo ematen ez bada; eta ezta ere gure ezau-garrietara egokitzen ez bada.

Etxera bueltatzean ere komeni da azala zaintzea?
Eguzkia hartu eta gero ere beharrezkoa da zerbait ematea, aurpegiko zein gorputz osoko azala lasaitu eta orekatzeko.

Ileari eta tindagaiei ere eragingo diete eguzkiaren izpiek, ezta? Zuek zer eskaintzen duzue horri aurre egiteko?
Eguzkiaren eraginaren aurrean, denboran irauteko gai den sistema berezi bat erabiltzen dugu, ilea babesten duena eta kolore gama handia duena. Estetikari dagokionez, zerbitzu ugari ditugu, eta udan gehien eskatzen direnak betileen luzapenak, depilazioak eta bioterapiak izaten dira, besteak beste.

Udan itxita izango al duzue ile-apaindegia oportetarako? Zer aurreikuspen duzue?
Abuztuaren 11tik 20ra bitartean izango duzu itxita ile-apaindegia. Bestalde, ekimen berezi batean parte hartuko dugu. Izan ere, Axpen egongo diren ume sahararrei ilea mozten joango gara uda guztian zehar.

Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Doinu afrikar eta kubatarren nahasketa eta Tapiaren folk progresista, Musikairegaz hasteko

Joseba Tapiaren eta Las Maravillas de Mali artisten kontzertuak plazan izango dira, 22:30ean; barikuan Tapiarena eta zapatuan bestea. Hamaika emanaldik osatuko dute nazioarteko kulturen Elorrioko jaialdiaren aurtengo eskaintza oparoa

MUSIKA • A.M.

Musikairek asteburu honetan ekingo dio 2019ko ibilbideari, emanaldi bigaz. Joseba Tapiak emango dio hasiera Musikaireri, *Vint Anys* proiektuaren aurkezpenegaz. Musika bakarka egiten hasi zela hamarkada bi pasatu direla aprobetxatuz, proiektu berri honi ekin dio trikitiagaz. Kantagintza modernoa eta musika herrikoia uztartu gura ditu bide berri honetan, etengabeko berrikuntzan, folk progresista bat sortzeko asmoz.

Kuba-Mali konexioa

60ko hamarkadan jaiotako proiektu berezia izango da asteburuko bigarren protagonista: Las Maravillas de Mali orkestra. Kubako musikaren eta folkloreaken eragina Maliko erritmoeekin uztartzen dute, fusio interesgarria sortuz. Habanan musika ikasi zuten hain-



Las Maravillas de Mali.

bat malitarrek sortu zuten taldea, Boncana Maigaren zuzendaritza-

pean; egun, lau hamarkada gerorago, Maigak berak jarraitzen du

taldeko zuzendari, eta musikari kubatarren laguntza du.

'Inun baino alaiagoa izanen da' emanaldiak irailaren 25ean eta 26an izango dira

Hertzainak taldea gogoratuko duen ordu biko emanaldia Euskalduna Jauregian izango da



Andoni Aldekoa, Josu Zabala, Lorea Bilbao eta Gari.

MUSIKA • A.M.

Hertzainak taldearen lehenengo diskoa kaleratu zela 35 urte igaro direla baliatuta, kontzertu bikoitz bereziak eskainiko dituzte Josu Zabalak eta Garik. Irailaren 25ean eta 26an izango dira, Euskalduna Jauregian, 20:30ean. Bikoiteak hamazazpi abesti prestatu ditu, Maldan Behera taldeagaz eta gonbidatu bereziekin batera jotzeko. Josu Zabala otxandiarak talde mitikoan bizitakoak egin dien ekarpena nabarmendu gura izan zuen emanaldiaren aurkezpenean, nostalgian jausi barik. "Hertzainak abestiak joko ditugu, nostalgiarik barik, poz handiagaz eta bizitzarekiko maitasun sakonagaz". Garik ere esan du ez dela "revival" bat izango: "Bizitzak berriro elkartu gaitu eta ospatu egin gura dugu".

Geure Durangaldea

Garazi
Mugarza Markina
Erizaina



Bezperak

Hiruzpalau egun falta dira uniforme aldi batez armairuan gordetzeko. Egongelako mahai txikia irakurriak izan zitezen mila bider lekuz aldatu ditudan eskuliburu eta gidaz beteta daukat. Eta etengabe mugitzen den itzal bihurtu naiz etxean. Sentitzen dut halako egonezinak etxeko baretasuna aztoratu izana, ondo ezagutzen nauzu: bezperak inon kabituz ezinda pasatzen ditut beti. Bai, bai, badakit, inork ez dit esan halako egunak pasa behar ditudanik, eta ez esan aparte jaten ematekoa naizenik (egia guztiak brome-tan esaten dira).

Trantzean igaro ohi ditut bezperako egunak; datorrenaz, etor litekeenaz eta halakorik etorri ezean egin behar nukeenaz itota; ganora barik jaten, gauzak erdizka lagata, mila konturi batera ekin eta bat bera ere amaitzeko astirik gabe. Orduari begiratzen diot egunak argitu duela baieztatzeko, eta edozer egitea iruditzen zait egokiagoa biharraren zain egotea baino.

Ez duzu inoiz ulertu nola zaizkidan eramangaitzago bezperak biharamunak baino, hondamendia itxarongo banu bezala ikusten nauzu igande arratsaldetan, azken lan egunetan: amaierari begira azken minutuen aurka lehiatzen, presaka, jomugarik gabe. Gauzak gertatzear baina gertatzeko daudenean, orduantxe asaldatzen naiz eta alferrikakoak dira aspertzeko era guztiak. Eta batzuetan biharamunak nora jo ezeko egun esnatzen zaizkit eta nagoen lekuan geratu izana etengabe berresten ahalegintzen naiz, ausentzien minez presentziak ahaztuta, igual neure buruaren zama jasanezin egiten zaidalako.

Garaje Miguel

GARBIKETA • TAPIZERIAK
MEKANIKA • GURPILAK

Arzubia, 10A - 1 Pabiloia
Matiena - Abadiño
Tel.: 94 681 91 61
www.garajemiguel.es

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o **BASA** Miren Amuriza (Elkar)

2^o **KONTRAKO EZTARRITIK** Uxue Alberdi (Susa)

3^o **HEZURREN ERRETURA** Miren Agur Meabe (Susa)

“Oso lasterketa polita izan zen; pozarren nago garaipenagaz eta txapelketan eman nuen mailagaz”

Errumanian jokaturako lasterketan garaipena lortuta, Irene Loizate da Europako duatloi txapeldun berria

DUATLOIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Irene Loizate duatleta durangarrak handia egin du asteburuan Errumanian jokaturako Europako Txapelketan. Maila horretan esprint distantzian lehiatu duen lehenengo duatloian, Europako txapeldun geratu da gazte durangarra.

Dagoeneko egun batzuk pasatu dira Transilvanian jokaturako Europako txapelketan garaipena eskuratu zenuenetik. Zer oroitzapen duzu Europako Txapelketa horretatik?

Oso lasterketa polita izan zen; pozarren nago garaipenagaz eta txapelketan eman nuen mailagaz.

Zelan ikusi zenuen zeure burua lasterketan zehar?

Lehenengo aldia zen maila goreneko lasterketa batean esprint distantzian aritzen nintzela. Hasteko, 5 kilometro korrika egin genituen; gero, 20 kilometro bizikletan; eta, azkenik, beste 2,5 kilometro korrika.

Banekien sasoi onean heltzen nintzela lasterketara. Aurreko asteetako entrenamenduak ondo irten zitzaizkidan, eta lasterketako astean ondo deskantsatu nuen. Baina lasterketa egunean, berotzen nenbilela, betiko sentazio arraroak izan nituen: hankak kargatuta, indarrak barik... Baina banekien ondo heldu nintzela, eta lasterketa

hasieratik oso sentazio onak izan nituen. Lehenengo bost kilometroetan, taldetxo bat gelditu ginen lasterketa buruan, eta oso gustura sentitu nintzen. Aurkariak arnasestuka entzuten nituen eta nik banekien oraindino beste puntutxo bat nuela. Bizikletako tartea oso zirkuitu erraza zen, eta ondo ikusten nuen neure burua, indartsu.

Azken trantsizioan lehenengoa izan zinen boxeketatik irteten, eta hortik aurrera bakarrik egin zenituen lasterketako azken kilometroak.

Azken 2,5 kilometroetara indartsu heldu nintzen, eta topera irtetea erabaki nuen. Momenturen batean pentsatu nuen arinegi nindoala eta indarrak barik geratuko nintzela helmugaratzeko. Banekien atzean korrikalari onak zetoze eta dena eman behar nuela irabazteko. Azkenean, helmugara hamabi bat segundoko errentagaz heltzea lortu nuen.

Azken metroetan zer pasatu zitzazun burutik?

Egia esan, azken tarte hori oso bizkorra izan zen, oso nekatuta nengoen eta helmugara heltzea zen nire asmo bakarra.

Helmugan gurasoak zain zenituen. Nolako momentua izan zen?

Lasterketa guztietara etortzen dira, eta Errumaniara ere etorri ziren, jakina. Bidaiatzeko aprobe-



Irene Loizate Sarrionandia
Europako duatloi txapelduna
Durango | 1995

txatzen dute. Helmugan gurasoak besarkatzea polita izan zen, baina ez zen izan beste probetan baino bereziagoa.

“**Astelehenean itzuli nintzen Errumaniatik, eta azterketa prestatzea da orain nire helburua**”

Aurreko Europako Txapelketa amaia biei eskaini zenien. Oraingoa, nori?

Garaipen hau ere eurentzat da. Gainera, oraingoa ezin izan dute lasterketa zuzenean jarraitu eta aitaren deia zain egon behar izan zuten.

Orain lasterketa luze bat duzu aurretik, Barneko Mediku Egoiliar izateko ikasketekin hasi zara-eta Oviedon.

Zazpi bat hileko etenaldia egingo dut, eta denbora horretan ez dut lasterketarik lehiatuko. Astelehenean itzuli nintzen Errumaniatik

eta martitzenean hasi nintzen klaseekin. Orain azterketa prestatzea izango da nire helburua. Hala ere, Oviedon domekaren batean korrikako lasterketaren bat badago, parte hartuko dut.

Batzuek diote ezin direla goi mailako kirola eta ikasketak bateratu.

Gura izanez gero, posible da denera heltzea. Ez da erraza, baina lortu daiteke. Nire prestatzaileari neure ordutegia pasatu, eta horren arabera ipintzen dizkit entrenamenduak. Nekatuta banago ere berak agindutakoa betetzen saiatzen naiz.

Asteko kirolaria



AROA GOROSTIZA ULLOA

Elorrio, 1999

Aroa Gorostiza txirrindulari elorriarra (Bizkaia-Durango) sasoi batean dagoela erakusten ari da azken hileetan. Hiru lorpen handi

“Nire mailan koska bat igo gura nuen aurten, eta gogor entrenatzen aritu naiz”

Gorostizak brontzezko domina irabazi du Espainiako txapelketan, 23 urtez azpikoan

daramatza denbora gutxian: garaipena Euskadiko txapelketan eta Euskaldun Torneoeko kronoigoera batean eta brontzezko domina Espainiako txapelketan, 23 urtez azpiko mailan.

Aurten ematen ari zaren maila ematea itxaroten zenuen?

Nire mailan koska bat igo gura nuen aurten, eta gogor entrenatzen aritu naiz. Maiatzean Emaku-

meen Bira ona egin gura nuen eta hitzordu horretarako ahalik eta ondoen prestatu nintzen. Horrek sasoi puntu ona eman zidan. Garaipen batez amesten duzu beti, baina lortzea beste kontu bat da eta pozarren nago lortutakoagaz. **Zelan joan zen aurreko asteburuko Espainiako txapelketa?** Hasieran ihesaldi bat sortu zen, eta gure taldekide Lucia Gonzalez han sartu zen. Movistarrek ere sartu

zituen txirrindulariak. Beraz, ihesaldiak aurrera egin zuen. 23 urtez azpiko urrea irabazitako txirrindularia, Yurani Blanco, talde horretan zihoan. Azken mendatean Movistarrek erritmo bizia ipini zuen eta hautsi egin zen lasterketa. Elite mailako beste batez geratu eta beragaz helmugaratu nintzen, nire mailan hirugarren.

Pozik zaude irabazitako brontzezko dominagaz?

Bai, pozik nago, baina penatxo apur bat geratu zait. Blancok bazekien aldats gora ez zela Enara Lopez [Bizkaia-Durango] eta ni baino gehiago. Gu baino inteligenteagoa izan zen. Lasterketa normal batean, Enarak urrea eta nik zilarra lortuko genituela esango nuke.

Zeintzuk izango dira zure hurrengo lasterketak?

Uztail amaieran Donostiako Klasiakoan parte hartuko dut. Lasterketa berria da, UCI mailakoa. Orain arte, mutilena bakarrik zegoen. Gehienbat lasterketa horri begira entrenatzen ari naiz egun hauetan. Bizkaia-Durangorentzat hitzordu garrantzitsua da eta lan egitea egokituko zait taldeari laguntzeko.

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO
Emakumeen Biraren etorkizuna kolokan dago. Ez da egoera horretan dagoen lehenengo aldia, baina oraingo hordagoak behin betikoa dirudi. Probako antolatzaile nagusia den Agus Ruizek ez du Bira nazioarteko egutegian inskribatu. Honek ondorio garbi bat du: 2020an, antolatzen bada, ez da Women World Tourreko parte izango, 2018an eta 2019an ez bezala. Beste kategoria baxuago batzuetan aukerak sortu daitezke, baina gaur egungo baldintzetan Ruiz ez dago aurrera jarraitzeko prest, eta argi du pilota ez dagoela bere teiltuan. "Ez naiz ni telefonoa hartu behar duena inori deitzeko. Nekatuta nago. Nik Bira antolatzen jarraitu dezadan, deitu egin beharko dinate, eta gauza batzuk bermatu", adierazi du.

Batez ere, Eusko Jaurlaritzagaz dago haserre, harek Birari ematen dion diru-laguntza kopurua dela-eta. "Diru-laguntzak emateko orain arteko irizpideekin jarraitzen badu, 2020an ez da Birarik

Promesak egin arren gero ez direla errealitate bihurtzen salatu du Agus Ruizek

Agus Ruiz: "Ez naiz ni telefonoa hartu behar duena inori deitzeko"

Emakumeen Birako antolatzaile nagusiak ardura horri uzteko asmoa erakutsi du, Eusko Jaurlaritzatik jasotzen duten diru-laguntza "lotsagarria" iruditzen zaiolako



Emakumeen Birak 32. aldia egin du aurtengo maiatzean.

egongo". Orain arte, 8.000 euroko laguntza jaso izan dute Jaurlaritzatik, eta 21.000 eurokoa Bizkaiko Aldunditik. "Jaurlaritzak Aldundiko kopuruaren erdira ere ez heltzea lotsagarria da. Gutxienez, Aldundiak ematen duenaren bikoitza eman behar luke", adierazi du Ruizek.

Iaz Jaurlaritzagaz izandako batzarretan gauza batzuk promestu zizkietela, baina gero ez direla bete salatu du. "Ahoz esaten dute, baina gero ez dut hori gauzatuta ikusten", adierazi du.

Bere 32 urteetan, Emakumeen Bira lurretan hasi da, bertako elkarre batek antolatuta. Ildo horretatik, Bira berriro ez antolatzea "penaz" hartuko luke Iñaki Totorikaguena alkateak. "Urterik urtera asko hazi

da eta, zenbat eta handiago bihurtu, orduan eta diru gehiago behar da horri eusteko. Beharbada faltan ikusten da erakundeen inplikazio hori", adierazi du. Bizkaia-Durango

Agurtzane Elorriagak ere ez du Birarik bako egutegirik gura. "Pena litzateke diru kontuengatik Bira gehiago ez antolatzea", adierazi du.



AGUS RUIZ

Bizkaiko Begiratokia rallya bertan behera gelditu zen, kopilotu bat istripuan hil eta gero

Muxika inguruko ibilbidean autoa bidetik irten, eta zuhaitz baten kontra jo zuen

AUTO LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO
Bizkaiko Begiratokia rallyaren 9. aldia zorigaiztoko gertaera bategatik gogoratuko da. Istripu batean, auto bateko kopilotu zihoan Julen Bilbao gernikarra hil zen, eta pilotua larri eraman zuten ospitalera.

Joan zen zapatu goizean gertatu zen istripua, Muxika inguruko tartean. Lehian zebiltzala, autoa bidetik irten zen eta zuhaitz bat jo zuen. Suhiltzaileek bertaratu



Bizkaiko Begiratokia rallyak 63 parte-hartzaile batu ditu aurtun.

behar izan zuten, auto barruan zeuden lagun biak ateratzeko. Pilotua, 32 urteko arratiarra, larri eraman zuten Gurutzetako ospitalera. Kopilotua, oster, hil egin zen istripuan jasandako zaurien eraginez.

Rallya bertan behera

Istripuaren ondoren, lasterketako antolatzaileek Bizkaiko Begiratokia rallya bertan behera uztea erabaki zuten. Egunean zehar, sare sozialak dolumin mezuz bete ziren. Esaterako, Euskadiko Automobilismo Federazioak bere dolumina erakutsi zion hildakoaren familari. Estatuko beste automobilismo federazio batzuek ere animo eta dolumin mezuak helarazi zituzten.

Jokaldia

Eneritz Iturriaga Mazaga
Txirrindularitza



Ezin da Biraren amaiera izan

Gogoan dut, txiki-txikitan, Emakumeen Bira ikustera joaten nintzela. Euskal Herriko zein nazioarteko txirrindularirik onenak batzen ziren. Ni etxekoak ikustera joaten nintzen, 14-15 urterekin: Oihane Etxebarría, Ana Etxebarría, Mireia Elkoroiribe... Cafés Baquek babestuta, han ibiltzen ziren denak, eta gu animatzen.

Bai, harrezkero 25 urte joan dira, eta bizipen horiei esker, txikitatik garbi izan nuen neuk ere euren modukoa izan gura nuela! Gero, ametsa errealitate bihurtu zitzaidan. Nire ilusiorik handienetakoa etxeko lasterketan parte hartzea zen beti. 14 bider parte hartu nuen txirrindulari moduan, eta beste behin zuzendari lez.

Zer esan nezake lasterketa honi buruz: euskal txirrindularitzaren gakoa da eta Estatuan dagoen gisa honetako proba bakarra. Eta, orain, bertan behera geratu daitekeela jakin dugu. Women World Tourra izanda, ez dagoela diru nahikorik? Betiko kontua: dirua. Emakumeen lasterketak egitea zaila da berez eta, gainera, laguntzarik ez badakagu, zer egingo dugu?

Gobernuak eta Aldundiak, zeri itxaroten zaudete? Argazkiak egiterako orduan, beti hor egoten zarete, baina orain, diru falta dagoenean, denak ezkutatuta! Txirrindularitza maite dugun guztiok kezkatuta gaude.

Dei egiten diet udal, babesle, aldundi eta gobernuei, denon artean Bira aurrera eraman dezaten. Gure seme-alabek eredu bat izaten jarraitu dezaten, ez telebistan bakarrik, baita errepidean ere.

Hauxe da unea denok bat eginda aurrera egiteko, nahiz eta kolore desberdinak eduki. Ezin dugu utzi Emakumeen Bira horrela hiltzen.

C E R A M I C A S
MACOBER
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua Industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890

katerin ardoak
iñaki uribe
25^{urte} Saltsan
Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardogia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguessedo.com
inmoduranguessedo@gmail.com



AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 beheha • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

//AUKERA

TABIRA: 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. Kanpora ematen du. **185.000€.**

DURANGO: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Berogailua. Igogailua. **130.000€.** Negoziagarria

KURUTZIAGA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. **99.000€.**

IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. 1. Mailako materialekin berritzatua. **97.500€.**

ZALDIBAR: 3 logela. Garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Berritzatua. **98.000 €.**

//ETXEBIZITZAK SALGAI

TXIBITENA: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela terrazagaz. Ganbara eta garajea. **215.000€.**

J.A. AGUIRRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **250.000€.**

TROMPERRI: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garaje itxia. **292.000€.**

MENDIZABAL: 2 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Garaje itxia aukeran. **178.000€.**

IURRETA: 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Bizitzen sartzeko prest. Eguzkitsua. **115.000€.**

PLATERUEN PLAZA: AZKENEKO etxebizitza. 120 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara. Garajea. **288.000€.**

ERRETENTXU: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. **240.000€** negoziagarria.

ANDRA MARI: 93 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **145.000€.**

MURUETA TORRE: 120 m². 4 logela, 2 komun, sukalde handia eta egongela terrazagaz. Trastelekua eta 2 kotxerentzako garajea. **270.000€.**

ATXONDO: 85 m². 3 logela, komuna eta egongela. 2 terraza. Garajea. Txokoa. Berritzatua. **148.000€.**

SAN INAZIO: 100 m². 3 logela, 2 komun, horma-armairuekin, sukalde handia eta egongela handia. Terraza. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. ALOKAIKURUA EROSTEN AUKERAGAZ. **256.000€.**

ZABALE: (Askatasun etorbidea). 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **170.000€.**

ANBOTO: Azkeneko pisua. 3 logela, komuna eta egongela. Balkoia. **185.000€.**

ABADIÑO: Familiabakarra. 484m². 1.000 m²-ko lursaila eraikitze auzeragaz.

ERDIALDEAN: 100 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. Garajea aukeran. **229.000€.**

ERROTARITXUENA: Apartamentua. Etxe osoak kanpora ematen du. Terraza. Garaje itxia. **220.000€.**

IURRETA: 111 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m²-ko terraza. Garajea eta trastelekua. **276.000 €.**

BERRIAK ESTREINATZEKO: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Ganbara. Garajea aukeran. **153.000€.**

MATIENA: Laubideta. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ikuspegiarekin. Eguzkitsua.

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Eraikiberrria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000€-tik hasita.

DURANGO: Komentu kalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa.

DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalean. Eraikina txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezinhoea.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. MERKEA.

IURRETA: MASPE KALEA: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua. Igogailua.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berritzatua. Trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

Gaztelua: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitze baimenagaz. Zonalde egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA: EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitze lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Bifamiliarra salgai. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.

ATXONDO: Marzana. Izugarritzko txaleta salgai. Ikuspegi ederrak. Berria.

MAÑARIA: Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrria berritzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000€

ATXONDO: Baserrri ikusgarria Martza auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berritzuta. Zonalde egokia.

BERRIZ: Murgoitio auzoa. Bifamiliarra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela eta 6 komun. Garaje bikoitza. 12.000 m²-ko lursaila. Leku ezin hobean, Anbotora begira.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Baserrri bifamiliarra. Berritzatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

BERRIZ: Baserrri ederra, Murgoitio zonaldean. 3 hektareako lursaila.

//BULEGOAK ALOKAIKURUAN

ABADIÑO: 40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIKURUAN

Aldezaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna, eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguessedo.com



MAÑARIA
20,041 m²
MAÑARIA: Eraikitze dagoen 20.041 m²-ko lursaila. Kokapen egokia eta ikuspegi ederrak.
169.500€




DURANGO
4 logela
1 komun
100 m²
GOIENKALEA: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Gas naturaleko berogailua. Kanpora ematen du. Garajea aukeran.
150.000€



ATXONDO
3 logela
90 m²
ATXONDO: AUKERA. Komuna, egongela, sukalde jantzia 12 m²-ko despentsagaz. Guztiz jantzia. Ganbara eta garajea.
147.000€



DURANGO
2 logela
50 m²
JUAN DE ITZIAR: 50 m². 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Berogailua. Argitsua. Ikuspegiarekin.
130.000€



DURANGO
2 logela
75 m²
DURANGO: 75 m². Berritzatzeko. Erdialdean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
99.000€



DURANGO
2 logela
51,9 m²
MATIENA: 51,9 m². 2 logela, komuna, egongela eta sukalde jantzia. Igogailua jartzeko proiektuagaz. 12.40 m²-ko ganbara.
73.600€

//DURANGO.

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€** / E.E.Z=F

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z=E

ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran

EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, 2 bainugela eta igogailua. **260.000€** / E.E.Z=E.

EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. LEHEN 321.500€ / ORAIN **300.000€** / E.E.Z=F

KALEBARRIA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela. **82.000€** / E.E.Z=G

KURUTZIAGA: 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **99.000€** / E.E.Z=Bidean

MIKELDI: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. LEHEN 250.000€ / ORAIN **235.000€** E.E.Z= F

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600m² ko lurzorua. **640.000€**

ZEHARKALEA: 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 150.000 € / ORAIN **130.000€** / E.E.Z= E

ZUMALAKARREGI: 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000 €** / E.E.Z= E

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **288.000€**/E.E.Z=E

ARLOZABAL: 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.Z=Bidean

//ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.E=Bidean

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000€** / E.E.Z= F

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000€ / ORAIN **85.000€** E.E.Z=E

//IURRETA

FAUSTE: Baserrria lurzorugaz, **220.000€** / E.E.Z=G

SANTA MAÑA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, trastelekua eta lursailagaz **125.000€**/ E.E.Z=G

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€** / E.E.Z=F

//MAÑARIA

EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara **150.000€** / E.E.E=Bidean. Txokoa aukeran

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€** / E.E.E=F

OLETA AUZO: Banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000€**/ E.E.Z=E

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela, ganbara eta garajea. **170.000€** / E.E.Z=Bidean

BERRIAK

//DURANGO

MONTEBIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. **230.000€** /E.E.Z=F

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Elorrio. Atiko polita errentan Elorrioren. 50 m2. Igogailuarekin. Tel.: 631 12 31 06

Abadiño. Muntzaratz auzoan, 90 m2-ko etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa.

ETXEBIZITZAK ERRENTAN
EMAN

Zaldibar. Zaldibarren herri erdigunean, 3 logelako pisua, oso eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

ETXEBIZITZAK ERRENTAN
HARTU

Elorrio. Elorrioko bikote arduratsu

bat gara eta alokairuzko pisu bila gabiltza (Elorrioren bertan). Tel.: 688 64 06 04

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsua eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil

pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

IRAKASKUNTZA

Zientziako klase partikularrak. DBH (3. eta 4. mailan) eta Batxilergoan laguntza klaseak ematen ditut: matematika, fisika/kimika eta teknologia ikasgaietan. 5 urtez irakaskuntza formalean ibili naiz eta zientziatiko ikasgaietan daukat formaziorik handiena. Interesik badaukazue jarri nirekin harremanetan: Tel.: 669 69 24 30 (Ane)

LAN ESKAINTZAK

ETXEKO LANAK

Plantxa orduka egiten dut. Esperientzia handiko emakumea, orduka plantxa zein etxeko lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan.

Tel.: 645 70 6839

PERTSONAK ZAINDU

Umeak zaintzeko. Umeak goizetan eskolara eramateko edo zaintzeko prest nago. Egurdietan eta arratsaldeetan seietatik aurrera ere ahalko nuke. Urte askotako esperientzia daukat. Irantzu Tel.: 644 41 11 74

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago. Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali, Tel.: 602 89 50 18 gaztelaniaz mesedez.

Barneko langilea lan bila. Adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa lisatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644 55 83 90

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: Tel.: 643 72 71 98 zenbakira.

Pertsona nagusiak zaintzeko. Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak, lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

ASTE HONETAN

SAN FERMIN JAIETAKO
ALE BEREZIA

DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



ttap
Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus



HAUXE BAI JENEROA!

EUSKARALDIA, URTEAN BEHIN...

BELARRI
PREST

AHO
BIZI

...ERDARALDIAK, BERRIZ, NOIZNAHI

ETA HEMENDIK AUERRERA,
EN CASTELLANO, PARA QUE
TODOS ENTIENDAN

PERO
QUE POCA
CULTURA
DEMOCRATICA,
¡HOMBRE!

¿¿COMO QUE NOS VAIS A DAR
LA TXAPA CON EL EUSKERA?!

Botikak

BARIKUA, 5 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 6 - 09:00-09:00	MARTITZENA, 9 - 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-13:30	09:00-22:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	EGUAZTENA, 10 - 09:00-09:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	09:00-22:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
DOMEKA, 7 - 09:00-09:00	EGUENA, 11 - 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
ASTELEHENA, 8 - 09:00-09:00	09:00-22:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorixonak, preziosa! 3 urte handi! Ondo ondo pasau zure urtebetze egunien! Patxo handi bat zure familia osuen partez.

Zorionak, **Iraide!** Gure etxeko printzesak 6 urte beteko ditu uztailaren 7an. Jarraitu orain bezain alai eta dibertigarri. Mosu handi bat etxekoan partez.

Gure etxeko printzesak hamaika urte bete zituen eguaztenean. Zorionak, **Ane!** Musu handi bat zure ahizpa Aialaren eta etxeko danon partez. Jarraitu irribarre horrekin!

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Manex (769. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.

Etxeko txikixe handi ein jakule konturatu orduko, zorionak, **Inhar!** Esku bete urte beteta segi horren alai eta granuja-txu. Etxeko danen partez musu potolo potolo bat, asko maitte zaittugu!

Zorionak, **Peio**, etxeko guztion partez! Uztailaren 4an 6 urte bete dozuz, jarraitu horrelako jatorra izaten. Mosu handi bat, laztana.

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

merkataritza gida **sarean** anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50C)

“Bideo-jokoekin eta telesailekin saiatsu ginen, baina plataformen aurrean ez dugu beste aukerarik izan”

Durango Sasikoa kaleko Greño bideoklubak ateak itxi ditu. Durangaldean DVDak alokatzeko gelditzen zen azken negozioa zen. Victor Manuel Morenok bizitza osoa darama bezeroei zineari buruzko aholkuak ematen

Victor Manuel Moreno Greño

(Durango, 1971)

• Greño bideoklubaren jabea

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Uztailaren hasieran, Greño Durangaldeko azken bideoklubak ateak itxi ditu. Plataforma digitalen olatuak eta pirateriak ito egin ditu DVDak alokairuan ipintzen dituzten negozioak. Victor Manuel Morenoren familiak hiru hamarkada baino gehiago igaro ditu bideoklubean. Aro bat amaitu eta beste bat hasten da Morenorentzat.

Berba bitan

Pelikula bat

Star Warsko frikia naiz

Aktore bat

Meril Streep

Zineko genero bat

Thrillerra

Pelikula bat ikusteko, bakarrik ala norbaitegaz?

Norbaitegaz

Krispetekin?

Pelikularen eta egunaren arabera

Noiz zabaldu zenuten bideokluba?

30 urte baino gehiago pasatu dira harrezkero. 80ko hamarkadan amak eta izekok abiatu zuten negozioa, eta gero neuk hartu nuen.

Sasoi hartan, bideoklubak modan zeuden.

Lehenengo loraldi hartan, bideoklub asko zabaldu ziren, eta gero beherakada etorri zen. VHS eta BETA sistemen sasoiaren. Azkenean, VHS nagusitu zen. Hurrengo loraldia DVDagaz etorri zen. Baina amaitu egin da, plataforma digitalak direla eta.

Hala ere, azken urteetan eutsi egin diozue.

Bai, inguruko bideoklub bakarria ginelako.

Zelakoak izan dira azken urte hauek?

Inor kontratatu ezin genuenez, bakarrik nengoen egunero lanean, eta gogorra izan da. Negozioa behe-rantzia zihoala ikusten genuen. Bideo-jokoekin eta serieekin ahalegindu ginen, baina plataformen aurrean ez dugu beste aukerarik izan.

DVD hauekin zer egingo duzu?

Itxiera iragarri nuenetik, jendeak erosi egin ditu batzuk. Atean telefono zenbaki bat ipini dut, baten batek pelikularen bat erosi gura badu etortzeko aukera izan dezan. Gelditzen direnak Bilbon salduko ditut. Pazientziagaz.

Alokatutako pelikularen bat itzuli barik dutenen zerrendarik baduzu?

Geratzen da norbait oraindino. Hau irakurtzen badute, itzuli ditzatela.

Zeintzuk izan dira pelikularik ikusienak azken boladan?

Azken sasoi honetan, superheroien pelikulak izan dira ikusienak, baita ‘Harry Potter’, ‘El Señor de los Anillos’ eta ‘Star Wars’ ere. Horrelako

sagen kasuan, pelikula berri bat ateratzen denean, berriro aurrekoak ikusten ditu jendeak. Telesailetan, berriz, ‘Juego de Tronos’.

Eta orain dela urte batzuk, zeintzuk ziren ikus-entzuleen gustuak?

Pelikula zaharragoei dagokionez, Schwarzeneggerren eta Stallonerenak nabarmen-duko nituzke.

Batez ere, zine komertziala ikusi da gehien.

Autore-zinemak ere badu bere publikoa, eta beldurrezkoak ere bai.

Zinea ikusteko ohiturak erabat aldatu dira plataformen eragikenez.

Zalantzarik barik. Lehen, asteburu batean eguraldi txarra egiten bazuen, jende mor-doa etortzen zen. Azken boladan, eguraldi txarra aitzakia zen etxean geldit-zeko eta pelikulak beste bide batetik ikusteko.

Zeren falta igarriko duzu?

Jendeagaz izan dudana hartu-emanarena. Oso gogoko izan dut bezeroekin zineari buruz berba egitea, eta haiei filmak aholkatzea.

Dendan dauden film guztiak ikusi dituzu?

Ia denak. Baten bat amaitu

barik ere utzi izan dut.

Irailean ibilbide berri bati ekingo diozu?

Ate bat ixten da, baina beste bat zabalduko da. Desko-nektatzea eta atsedean har-tzea behar dut.



Lauhortza

Mikel Uriguena Ruiz Irakaslea



Ez gaude salgai

Harrotasun Eguna ospatu da Durangon lehenbizikoz. Stonewalleko istiluen 50. urteurrenean heldu da aldarrikapena gure herrira. Urteko egunik beroenean bildu ginen hainbat lagun udaletxe aurrean kale-jirari hasiera emateko. Bertan gertatutakoak irakurketa ezberdinak utzi baditu ere, 3 ideia azpimarratuko nituzke: alde positiboa, alde negatiboa eta aukera.

Alde positiboari dagokionez, txalotu beharra dago kalejira emakumeek gidatu izana eta lesbianen aldeko oihu eta aldarrikapenak izatea gehien entzun zirenak. Oso garrantzitsua da hau, mugimenduak berak, gizarte eredu patriarkalaren parte den heinean, gizonezko gayari eman diolako lehentasuna beti, besteak ezkutuan utzita. Gaur egun ere, gayfriendly diren ekitaldi gehienek darabilten irudi eta mezuei begiratzea besterik ez dago.

Alde negatiboa bildutako jende kopurua izan zen. Egia da oso egun beroa izan zela, baina benetan uste dut etorri ahal zirenen kopurua askoz handiagoa dela herri honetan. Esango nuke batzuk ez zirela bertaratu besteak pentsatuko dutenaren beldur, eta beste asko ez dutelako uste ezer aldarrikatzeko dagoenik. Kapitalismoak, tamalez, onartu gaituela sinestarazi digu.

Azkenik, aukera. Beste lekuetako eredu komertziala ez errepikatzeke abagune paregabea dugu. Stonewallen polizia aurre egin ziotenak ez ziren gizon zuri gihartsuak izan. Egundau eskubideak aldarrikatzeko da. Bakoitzak nahi duena, nahi bezala, maitatzeko eskubidea. Garen modukoak izateko eskubidea. Jaia bai, aldarrikapena ere bai.

DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, Kabilduoste zona eskusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitetz!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

www.sukia.com